


Santa Zezilia eguna

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko azaroak 19

213. zenb.




Pion Orokorra
**Etorkizuneko
Arrasate
Marrazten**

Javier Mongelos
**Kooperatibak
krisi garaian**

irugarren Kotxe
3. HILABETEA

Azaroa ere
Emozio-aroa
Zure libretarentzat


bizigarria
dirau



DATORREN **ABENDUAREN 9AN**
BESTE SEAT IBIZA CL 3 ATEDUN BAT
ZOKKETATUKO DUGU ARRASATEN

Eskura itzazu txartel zenbakituak **abenduaren 1etik 30era** bitartean
zure aurrezki-libretan aurreztuz.

Kutxan aurreratzeak badu abantaila franko!



∴ kutxa ∴

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Tfnoa: 71 46 08

GATZAGAN


Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Ekonomia berria eta enplegua

Mundu global berriarekin datorkien bide latzari buruz multinazionalen duten larritasuna jasotzen dute aspaldian komunikabideek, nazioen iratzartzea dela eta, garai baten zokoratua eta gaur egun modernitatearen buru-buruan daudenez. Duela lau hamarkada inork ere ez zuen txakurraundi bat ematen Corea eta Asiako Dragoien alde, baina gaur egun, horiek dira aurrez aurre ditugun kontrarioak, konpetitibitatearen eskenatokian zaindu beharreko etsaiak.

Bigarren Mundu-Gerra amaitu ondoren, inork ere ez zuen pentsatzen hirugarren mailako herrialdeek Estatu Batuak bezalako herrialde indartsuei itzalik egin ziezaieketenik, baina denborak desmantelatu egin ditu ideia zurrin horiek, zabalkunde teknologikoa bezalako gauza ingenuo batengatik, izan ere munduaren buru eta arrisku konpetitibotik babesturik gordetzen zituen diferentzial hori banalizatzeak.

Lurrean bi fenomeno handi gertatu dira: merkatua mundu mailako egitea eta zabalkunde teknologikoa. Merkatuaren aldetik mugak apurtu egin dira, aduana eta distantzien trabak bota, eta teknologiak permeable eta edozein nazioaren eskura jarri dira, bai bere politika propioarengatik, bai multinazionalen estrategiarengatik ere, irabaziak birsortzeko lekuri egokienaren bila ibiltzen baitira.

Irabazien obsesioak estrategia aldatzera eramaten ditu enpresak: euren ingurune naturalean, eskualde edo herrialdean erdi finko egotetik, deslokalizaziora, kosturik txikiak dituzten lekuan euren lantegiak jarri. Lantegia, nolabaiteko faktore egonkorra izatetik, erabat mugikor bihurtu da, nazioetako gobernuek kontrolatu ezindako balio.

Sistema kapitalistak irabazien iturritik birsortzen den neurrian du eta hartzen du zentzua, eta iturri hori, irabaziak errazen birsortzea diren lekuan kokatzen da. Euren burua ekialdeko trumoitik salbu ikusten zuten herrialdeek, bizi dituzte orain komu-

nismoa erori zenetik munduan inposatu den sistemaren efektuak. Baina amestutako mundua, monopolismo kapitalistarena, kostuaren eta soldata bajuen aldetik eraso eginez mugitzen da, mendealdeko mundu paradisiakoa jipoituz; mundu horrek gorriak ikusten ditu Corea eta Japon bezalako herrialdeen eskutik hain ezustean datorren iraultzari aurre egiteko.

Eta ez dago baliapide handirik. Errezeta bakarra ordutegi eta soldata era proportzionalean gutxitzea dela esaten eta adierazten da. Gure sindikatuak baraurik harrapatu ditu, ez lanorduak gutxitzearekin, baizik eta merkatuetan sartzeko bitarteko horiek erabiltzen dituen etsaien aurrean erreakzionatzeko era bezala, soldata gutxitzearenak.

Gizarteak ezin du gure lantegi tradizionalei eragiten dien aldaketa handi hauengandik aparte egon.

Erreakzionatu egin behar du, erreibindikazio hut-

saren bidetik iterearik gabeko zulora

baino ez dela iristen konturatuta

jardunez. Gure bitarteko sozia-

lek, sindikatuak, nagusiak

errudun jarri egiten duten irakurketak ezer gutxitarako

balio du, eta gutxiago oraindik sistema kapitalistaren

kontra jotzen badute. Momentuz, gauden lekuan gaud-

de, eta herri inteligenteez zentzu praktikoz, bisio posibilistaz jokatzeko egiten

dute borrokan. Euskadik, gaur egungo "armadun" gatazka kostetsu eta inutilari buruzko gogoeta serioa

egiteaz gain, bere pretentsio sozialak berriz pentsatu eta egokitu egin behar ditu, gure konpetitibitateak beregana ditzakeen neurrian, bere errealitate konpetitibo dela eta ez dagozkion mailekin amets

egin beharrean. Gure soldata nazioarteko konpetitibitate parekagarriaren mailara jeisten ez baditugu, masiboki suntsituko dugu enplegua. Gutxi gora behera, industrian lanean ari den biztanlego aktibotik

puntu bat urteko. Gure destinua, gure gogoen norabidea aldatzen ez bada, **emigrazioa** da.

JESUS LARRAÑAQA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzasu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitateak:** Amaia Gabiñdo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaqa, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopl, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Orati).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba.

IR TABERNA TI

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

••••

Eskerrikasko Goikobaluri

Eskerrikasko bai, biotziotzez. Lenengo, aukera bat emon dustazuelako zeuekin batera abesteko nik ainbat gustoko doten Bettehovenen 9garren Sinfonia, batez be daukaten edadiakin, ia gutxi geldiketan jatelako, esan leike azken aukera izango dala au, ta aundixena, nire jaioterrixen, Arrasaten. Nik, leku askotan abestu dot, ta beti oso gustora, 9garrena. Sinfonia au, baiña, emen, zeuekin errixen abestu dotenakin emon dustazue gizonari emon leiken bizipoz aundixena. Esan dot, bizipoz aundixa emon dustazuela, ta ori egixa da, baiña, zuek, urrixen 30n, Santanderren eñ dustazuen oparixakin, gaiñezka ipini dozue nire biotza emozioz ta poztasunakin. Eztaukat barbarik esateko, orduen nire barruen pasau zanakin, nire bizi gustien olakorik etxat gertau, enekixen nun ninguenik be, olakoxia zan nire emozioñua zuen opari ederra eskuetan artu nuenian, Ruiz de Alegria zuzendariak eskeiñita.

Eskerrikasko Goikobalu abesbatz alkarteko danoi, Lendakari, Zuzendari ta abar danoi, ta batez be niri laguntzen ibilli diren gazte-koadrilliei.

Emen naukazue zeuek gura dozuenerako.

PEDRO ZUMELAGA

••••

Lotsagarria da tasen igoera

Ikasle Abertzaleak-ek greba deialdiari erantzunez, Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasleek grebarekin bat egin genuen joan den azaroaren 10ean.

Hezkuntza Kontseiluarekin izandako bileraren ondoren ezer argitu ez zenez, tasen igoera eta EHUko kaosak aurrera darrai.

Bide batez Ikasle Abertzaleak-ek bezala, guk ere ez dugu Hezkuntza Kontseiluaren jarrera onartzen eta tasen igoera honek guban eragina izan dezakeenez, greba honekin eta hurrengoekin ere gure solidaritatea azaltzeko prest gaude.

Besterik gabe, irtenbide azkar bat aurkituko den aburuan EHUko ikasleekin bat gatzela erakutsi nahi dugu eskutitz honekin.

IRAKASLE ESKOLAKO IKAS-
LEAK

**Edozein keja,
komentario,
burutazio dauka-
zula? Idatziguzu
gutuna eta gusto
handiz argitara-
tuko dugu. Idatzi
20 lerrotik gora
eta eman zure
izena, N.A.M. eta
telefonoa harre-
manetarako.**




FRANZISKA NAFARRATE URIBARRI ANDREA
AZAROAREN 15EAN HIL ZEN 77 URTE ZITUELA

GOIAN BEGO

ARKOKO LANKIDEON IZENEAN DOLUMINAK FAMILIARI

Zer iruditzen zaizu kalean Gabonetako argiak jartzea?



Alex Urrutia
Bankuko langilea
(45 urte)

Ez dut uste merezi duenik horrelako gasturik egiterik.



Piedad Cordero
Etxekoandrea (49 urte)

Oso ondo iruditzen zait, jaietarako argiak polito gelditzen direla uste dut.




Migel Anjel Guridi
Almazeneroa (35 urte)

Ez diot nik zentzurik ikusten horri. Ez zait gustatzen. Nik paso egiten dut.



Miren Bego Garcia
Irakaslea (34 urte)

Ondo. Iaz ere ipini zituzten ezta? Ba orain gehiago goal.



Jesus Izagirre
Kalentadore-gilea
(60 urte)

Ez zait gustatzen. Nik argirik gabe ere ondo pasatuko nuke.



Inmaculada Abad
Dendaria (32 urte)

Ondo iruditzen zait, herria alaitzen dute eta Gabonei zentzu gehiago ematen diete.



Luis Gonzalez
Aurkiko langilea
(31 urte)

Ondo iruditzen zait, herria alaitzen duela, betiere askakeria bat edo gehiegikeriarik egiten ez bada.



Esther Martin
Langabea (23 urte)

Superpolita da, ezta? Ederto gelditzen da. Niri Gabonetan horrelako gauza horiek ikustea gustatzen zait.

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

**LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
LIPOSUKZIOA.**

Zelulitia, grasa eta
loditasuna behin betirako
kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Cruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxoak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualdariora 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udai zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburategia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 19
 Egunez 22.00ak arte: Estella. Bergara.
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Larunbata 20
 Egunez 22.00ak arte: Mozos. Bergara.
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Igandea 21
 Egunez 22.00ak arte: Mozos. Bergara.
 Egunez eta gauez: Español. Iturnotz, 17.

Astelehena 22
 Egunez 22.00ak arte: Camacho. Bergara.
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

Asteartea 23
 Egunez 22.00ak arte: Puy. Bergara.
 Egunez eta gauez: Inzira. Erguin.

Asteazkena 24
 Egunez 22.00ak arte: Guallar. Bergara.
 Egunez eta gauez: Amezua. Sta. Marina.

Osteguna 25
 Egunez 22.00ak arte: Estella. Bergara.
 Egunez eta gauez: Puy. Barrenkale.

19 OSTIRALA

ZINEA
 "El Fugitivo". 7etan eta 10etan.

HITZALDIA
 Jhon Toshacken eskutik. Gaia:
 "Hau da nire bizitza". Aurkezlea: Pedro Gabilondo, "Diario Vasco"ko kirol saileko erredaktore burua. Eskoriatzan, irakasle eskolako hitzaldi aretoan. Arratsaldeko 7etan.

ANTZERKIA
 Txontxongilo taldeak "Herensugea" obra antzetzukoi die, eskolaurreko haurrei. La Merced ikastetxean, goizeko 10 etan eta 11etan. Jokin Zaiteg Ikastolan, arratsaldeko 3etan.

MUSIKA
 "Planta Baja" taldearen kontzertua. Elorrioko Kafe Ateneon, gaueko 11etan.

20 LARUNBATA

ZINEA
 "El Fugitivo". 5etan, 7,30etan eta 10etan.

ELKARRIREN SINADURA BILKETA
 Elkarrizketa eta akordioaren alde

GAZTAINERRE JAIALDI MUNDIALA
 AEDko Gazte Mobidiek antolatuta, Plazan. 5etatik aurrera.

ANTZERKIA
 Taldea: Taun-Taun kolektiboa.
 Antzezlan: "Bi Kate". Eskoriatzako irakasle eskolan, gaueko 10etan.

FUTBOLIN TXAPELKETA
 Arrasateko Biona txapelketan. Arratsaldeko 4etan hasiko da. Inskripzioa 1.000 PTA bikoteko.

KONTZERTU ANTI-FASZISTA
 "Speereth", Gironako taldea eta "El nuevo Catecismo Catolico", Donostiarrak. Arrasateko gaztetxean, gaueko 9etan.



ERAGIOK TANBOLIÑARI
 AEDko gazte mobidakoek, 250 kilo gaztaina erreko dituzte larunbatean herriko plazan, arratsaldeko 5etatik aurrera. Sagardoa ere banatuko da. Guztia, borondatearen truke. Trikitilari, txalapartari eta hankapaloak arduratuko dira giroa alaitzeaz.

21 IGANDEA

ZINEA
 "El Fugitivo". 5etan, 7,30etan eta 10etan.

MENDI IRTEERA
 Murruxiko M. Eak antolatuta. Irteera Lekandara, egun gutxitirako. Irteera goizeko 9etan, Aretxabaletako partenoititik.

PINTURA ERAKUSKETA
 Santi Altuna pintorearen lanak ikusteko azken aukera. Eguerdiko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

III EUSKAL ESAKERA ETA BERBA BEREZIEN LEHIAKETA

Norberaren herrian edo inguruetan erabiltzen diren 3 esaera edo 5 berba berezi bidali behar dira, gutxienez. Zehaztasun hauek azaldu behar dira: nori eta non entzundakoa den, zer esateko eta zein testu-ingurutan erabiltzen den. Esakera eta berben jatortasuna, aberastasuna eta kopurua edukiko dira kontutan. Lanak Bi-zkaia Irratira bidali behar dira, azaroaren 30erako.

22 ASTELEHENA**ZINEA**

"El Fugitivo". 7etan eta 9,30etan.

MENDIKO ASTEA 93

Murrukixo M.Eak antolatutako hitzaldia. Gaia: Errusian eskalada. Hitzlaria: Ion Lazkano. Aretxabaletako Zaraia zineman, 7etan.

STA. CECILIA EGUNA

Arrasateko San Juan Bautista Parrokian Meza, arratsaldeko 7etan.

HITZALDIA

Aretxabaletako drogomenpeko-tasun zerbitzuak antolatuta. Gaia: "Eboluziozko eta prebentziozko psikologia". Aretxabaletako Kurtzeberri eskolan, arratsaldeko 6etan.

ERAKUSKETA

Lumazko idazketako lanen erakusketa. Monterrongo erakusketa aretoan. Egune-ro 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, 12etatik ordu 2etara eta 6etatik 8etara. Azaroaren 28 arte ikusgai.

ESKAPARATISMO IKASTAROA

Ibai-Arte elkarteak antolatuta. Irakatsiko diren gaiak: argia, kolorea eta sakontasuna. Ikastaroa, lantegi eskolan emango da. Izene-matean, bazkide diren dende 10.000 PTA ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 15.000 PTA. Komeni da lehenbait lehen apuntatzea, 798795 telefonora deituta.

EKIN IKASTAROETAN

Ekin emakume taldearen ikastaroetan partehar dezakezu oraindik ere. Eskulanei buruzkoa, astelehenero ematen da AEDren lokalean, arratsaldeko 3,30etan. Sukaldaritzari buruzkoa, asetzen ordu berean.

23 ASTEARTEA**ZINEA**

"El Fugitivo". 7etan eta 9,30etan.

UEUren IV.ARRASATEKO IHARDUNALDIAK

AEDren X. Urteurrenaren barruan. Hitzaldia: "Euskaldun berriak: euskara ikasteko eta euskaraz aritzeko dauden esperientzia desberdinak". Hitzlariak: Josu Izquierdo eta Iñaki Izarzelai. Monterron kultur etxean, arratsaldeko 7etan.

MENDIKO ASTEA 93

Gaia: Patagoniar Izotzetan. Hitzlaria: Jose Karlos Tamaio. Aretxabaletako Zaraia zineman, 7etan.

HITZALDIA

Gaia: "Estudio de nuestro entorno: valores turísticos y ecológicos". Hitzlaria: Lourdes Romano. Arratsaldeko 6,30tan, Eskoriatzako kultur etxean.

HITZALDIA

Aretxabaletako drogomenpeko-tasun zerbitzuak antolatuta. Gaia: "Drogomenpekotasunari buruzko prebentzioak". Aretxabaletako Kurtzeberri eskolan, arratsaldeko 6etan.

ERAKUSKETA

Gaia: "Euskal Herriko soinu-tresnen erakusketa". Harresi aretoan. Egune-ro, 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, 12etatik ordu 2etara eta 6etatik 8etara. Azaroaren 28rarte zabalik.

24 ASTEAZKENA**MENDIKO ASTEA 93**

Gaia: K2. Aretxabaletako espedizioaren diapositiba emanaldia. Aretxabaletako Zaraia zineman, 7etan.

HITZALDIA

Aretxabaletako drogomenpeko-tasun zerbitzuak antolatuta. Gaia: "Denbora libre eta prebentzioa". Aretxabaletako Kurtzeberri eskolan, 6etan.

25 OSTEGUNA**ZINEA**

"Los Visitantes". 7etan eta 9,30etan.

MENDIKO ASTEA 93

Murrukixo M.Eak antolatutako hitzaldia. Gaia: Mazeno Peak. Valle De Unza. Hitzlariak: Jose Luis Zuloaga eta Kike de Pablo. Aretxabaletako Zaraia zineman, 7etan.

HITZALDIA

Aretxabaletako drogomenpeko-tasun zerbitzuak antolatuta. Gaia: "Familiaren papera". Aretxabaletako Kurtzeberri eskolan, 6etan.

ANTZERKIA

Fregoli taldeak "Bremengo musikariak" obra antzeztuko du, Amaia antzokian. Erdi zikloko ikasleentzat. Goizeko 11etan, San Andres, Erguin, La Merced eta San Viator ikastetxeetako haurrentzat. Arratsaldeko 3etan, S.F.X, Almen eta Musakola ikastetxeentzat.

PINTURA ERAKUSKETA

"Zerra" pintore arabarraren lanak ikusgai. Gaztetxean. Hies Ekimenekoek antolatuta, "Adibidez" ekintzen barne.

VII. ARGAZKI LEHIAKETA

Nahi duten argazkizale afizionatu guztiak parte har dezakete. A atalean, gaia askea izango da eta txuri beltzeko paperean nahiz koloretan aurkeztu beharko dira lanak, autore bakoitzak lau gehienez. B ataleko lanen gaia, mendia izango da eta beste baldintzak A ataleko berdinak. Lanak abenduaren 14a baino lehen bidali beharko dira Aretxabaletako Murrukixo M.Era. Informazio gehiago nahi izanez gero, deigin 790105 telefonora.



“Lehengo kamino zaharrak ditugu, barianteak ere bai, eta orain autopista sartu nahi dugute. Honek scaletrix itxura hartu behar du. Saihesbidetan gastatutako gutzia ez dela nahikoa esaten digute orain. Zentzua apur bat erabiliz, saihesbide horiek hobetu egin ahal izango lirerateke, edo berriak egin hainbat puntu beltzetan. (...) Maltzaga-Urbinak kiratsa dario. Proiektuaren atzean beste interes izkukurik dagoen ikertu beharko litzateke. Proiektu hau bultzatzen duen jendea-erengan, beste gatazka batzuetan izandakoak aurkitzen ditugu. Honek oso usain txarra du”.

J. Martín eta Julian Ezenarrok 93-11-11ko **egin**

“Edozein hezkuntz sistema, demokratikoa, publikoa nahiz pribatua izan daiteke. Adibide gisa, ondo legoke Gobernuak hezkuntzako udal aukera ere garatzea. Bigarrenik, edozein ikastola, eskola, unibertsitatetako ordezkari eta gestio demokratikoko organuak, elkarte publiko, pribatu edo kooperatiba elkarteetatik irtendako ereduak erabiliz arau daitezke. (...) Euskal Herriko kooperatiben esperientzia nazioarte mailan errazkoziztua da, bere antolaketako demokrazia dela eta, eta euskaldun guztiontzat arrotzeko arrazoia izateaz gain, beste sistema batzuetzat alternatiba gisa ikertzen dute herrialde askotan”.

Javier Ruiz de Munainek, 93-11-12an **EL DIARIO VASCO**

“Ajusteko politika eta lanpostuak sortzea, elkarren baztertzailan dira. Inbertsio publiko indartsuan oinarritutako politika expansibo bat ezarri bakarrik sor daiteke enplegua, edo dagoen lana eskuen artean banatuz bestela. (...) Mugimendu sindikalaren gaitasuna, langileok enpleguaren aldeko borrokan gure erreibindikazioekin aurrera egiteko dugun gaitasuna, sortuko dugun sentsibilizazio eta mugimendu sozialeko mailarekin dago zuzenean lotuta”.

Juan Ramon Garaik 93-11-9


EL MUNDO
- PAIS VASCO

Zertarako torturaren aurkako herri ekimena?

Amnistiaren aldeko batzordeak kaleratu berri du herri ekimen hau. Euskal Herri osoan, gai honen inguruan lan egiteko prest dauden taldeak osotuz doaz. Arrasaten ere, aukera bagenuela ikusita, herri ekimen hau martxan jarri da.

Ekimen honen helburua, zigorgabetasuna sortzen duten hainbat lege, legebiltzarrean alda ditzatela eskatzea da. Lege antiterroristapean dauden klausula batzuen bidez, zigorgabetasuna ematen da eta ondorioz tortura ahalbidetu. Konkretuki herri ekimen honek, hiru lege alda daitezkeen nahi du. Lehenik, pertsona atxilotuaren inkomunikazioa kentzea eta aukera eman berari, nahi duen abokatu eta medikua izendatzeko. Bigarrenik, audientzia nazionala kendu eta normalki egiten den bezela, kasua aztertzeo ahalmena epaile naturalak izan dezala eskatu nahi da. Azkenik, lege aldetik tortura ondo tipifikatu dezaten ere nahi dugu, estatu espainiarreko legeetan tortura zer den ez baita ondo azaltzen.

Gure asmoa, Euskal Autonomi Elkartearen 50.000 sinadura eta beste 10.000 Nafarroan biltzea. Honela legebiltzarrean, aurrez aipaturiko legeak alda ditzatela eskatuko dugu. Sinadura hauek biltzera kalera aterako gara eta era honetan ditugun hainbat txostenez baliatuz, torturari buruzko informazioa ere emango dugu. Bestalde, beste talde batzuekin biltzeko asmoa ere badago, sinadurak biltzen lagun diezagutela eskatzeko.



Goio Etxabe
Torturaren Aurkako Herri Ekimeneko partaidea

ARTOLA
KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABAETA

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

Lurralde Plana

Deba Garaierako Lurralde Planaren egitasmoa aurkeztu zuten joan den astean Oñatin Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako arduradunek. Udalerrri bakoitzak bere plan nagusia edo arau subsidarioak dituen moduan, Lurralde Plan partzial hauek antzerako funtzioa daukate, baina eskala zabalagoan, eskualdekoan. Beraz, Deba Garaiko lurrak nola erabileriko diren, non beharko diren zonalde industrialak, non erresidentzialak, komunikabideen sarea... horrelako gauzak dira Lurralde Planean azalduko direnak. Plana bi urteko epen erredaktatuko da. Diputazioko arduradunek azaldu zutenenez, plan honen bitartez desaroilismo esan izan den horretatik ihes egin nahi dute, garapena aurrerakuntza sozio-ekonomiko orekatu baten bitartez lortzeko.

Ostiraleko plenoa

Joan den ostiraleko plenoa Eusko Alkartasunako zinegotzi berriaren lehenbizikoa izan zen. Juan Antonio Barriocanalek



EAREN JARDUNALDIAK ARRASATEN

Eusko Alkartasunak Gipuzkoako Kargu Publikoen IV. Jardunaldiak burutu zituen joan den asteburuan Arrasaten. 100 lagunetik gora bildu ziren, Gipuzkoako zinegotzi, alkate, juntero eta parlamentariak guztiak ere. 91n hasitako legegintzaldiaren errepasorako eta aurrera begirako hausnarketarako bilkura bat izan zen. Besteak beste, Euskal Ezkerrarekin harremanak finkatzeko asmoa azaldu zuten. Gero ikusi dugunez, ordea, aste honetan bertan hautsi da EA-EUE koalizioa. Bestetik, Joxe Julian Irizarrek, alderdiko Gipuzkoako lehendakariak, aurrera ere euskal gizartean erreferentzia izaten jarraitzeko asmoa berretsi zuen. Imanol Murua diputatu nagusi ohia ere egon zen Arrasaten, eta Maltzaga-Urbina autopista proiektuaren aldeko bere jarrera azaldu zuen.

EAko zerrendaburu izan zen Pedro Mari Ruiz de Azuaren tokia bete du. Plenoan, bestetik, aktetan fiabardura bat gehitzeko eskatu zuten zinegotzi sozialistek: aurrerantzean, PSE beharrezan, PSE-EE izenarekin ager daitezela.

Trafiko istripua

Motor baten eta auto baten talka dela eta, Miguel Angel Frutos 22 urteko arrasatearra zaurituta geratu zen joan den ostegunean izandako istripu batean. Uribe auzoan, Ostarku diskotekaren parean gertatu

zen istripua motorrak auto baten kontra jo zuenean.

Kale berria

Arrasatek kale berria dauka erdialdean, Roneoko lantegi zaharreko terrenoe-tan eraikitako Lau-Kale urbanizazioaren obren ondorioz. Hala efe, kale berriak ez du izen berririk edukiko, eta beste kale zaharrago baten luzapena izan dadila erabaki du Udalak: San Juaneko etxeetako San Bixente Ferrer kalearen izena hartuko du tramo berriak ere. Bestetik, aipatu liteke Gerra garaiko obus bat azaldu dela Lau-Kaleko obraetan etxe bat behera botatzean.

JAIOTZAK

- Yeire Estella Sanchez. Azaroaren 10ean.
- Irati Alustiza Sagarna. 6an.
- Jesica Tena Garcia. 11an.
- Alain Concepción Cruz. 12an.

HILDAKOAK


- Antonia Colorado Moreno. Azaroaren 10ean. 64 urte.
- Catalina Viana Zubia. 11an. 70 urte.
- Francisca Nafarrate Uribarri. 15ean. 77 urte.
- Jesus M^a Ugarte Letona. 15ean. 52 urte.


eya

Electrozailuak

ETXERAKO AUKERA GUZTIAK

Iturriotz, 21 ARRASATE Tfnoa: 79 03 84





MIKEL IRIZAR *

Herri komunikabideak, nolakoak?

Herri-komunikabideen garapena Euskal Herrian ere fenomeno kategoriara hurbiltzen ari da, ezezagupenaren eta bitxikeriaren faseak gainditu eta gero. Orain bost urte sortutako medioak sendo agertzen dira eta haien ondotik berriak sortuz doaz, presarik eta etenik gabe. Bestalde, hasierakoak gehienbat idatziak baziren, gero eta ugariagoak dira herri-telebista eta irratiak. Eta badirudi etengabeko garapen hau kezka bat baino gehiago sortzen hasia dela komunikabide handiagotan.

Alde guztietan bezala, gurean ere informazio orokorreko medioak sortu eta garatu ziren lehenengo, publikoak nahiz pribatuak, 60. hamarkadan piztu zen mundu zabaleko berrien egarriari erantzunaz. Geroago, ordea, eta joera hori orekatzeko, hurbileko informazioaren premia agertu zen eta honen eskutik herri-komunikabideak. Munduan zehar, ko-

munikabide handiek egoera berri honetara egokitu beharra izan dute, eurek hurbileko informazioa indartuz edota medio lokalekin elkarlana jorratuz. Horretarako, noski, ezinbesteko premisa izan da gaiaren garrantziaz jabetzeaz gain, hurbileko informazioaren esparruan hurbileko medioek duten indarrak ohar-tzea. Badirudi oraintxe gaudela hemen une horretan.

Duela hiru bat urte, hau da, atzo, herri-komunikabideen gauza bitxia zirudien goialdetik begiratuta. Apenan han-hemenka mugitzen ziren taldetxo jator eta borondate onez beterikoen emaitza sinpatikoa. Hiru urte berandua gaur gaiak serioagoa dirudi eta goialdekoen jarrerak gogortzen hasi dira: konpetentzia, diru-laguntzen bikoizketa eta antzeko kontzeptu beldurgarriak erabiltzen dituzte dagoeneko. Argitasun pixkat merezi dute-nak, bestalde.

Konpetentziarena egia da

matematikoki. Ikusle/entzule/irakurleen kopurua mugatua da eta medioen ugaltzeak koizentearen murrizketa dakar, dudarik gabe. Baina ekuazioan hizkuntzaren datua sartzen bada gauzak dexente aldatzen dira. Euskarazko herri-komunikabideak publiko berria sortzen ari dira -eta hau neurtu daitekeen errealitatea da- kide nagusiak iristen ez diren gizamultzoetan. Beste horrenbeste esan daiteke publizitateaz, herri-komunikabideetako bezeroa inoiz publizitaterik egin gabekoa baita %90ean. Bi puntu horietan, beraz, konpetentzia baino mesedeia egiten diete txikiak haundiei.

Dirulaguntza publikoen kontuan ere badago azalaren pean haragirik. Euskal Herrian herri-komunikabideak sortu egingo dira -sortzen ari dira- dirulaguntzekin edo gabe. Lehen kasuan lor daiteke, politika egokia ezarritik, sortzen diren medioak euskaldunak izatea eta zerbitzu funtzioa egitea. Bigarrenetan, sortuko diren medioak sortzen ari den zenbait erdaldu-nak izango dira eta komertzialak. Hemen dago benetako koska.

Helburu ederra da, banakakeria nagusi den garaio-tan, giza-kohesioa gorde eta sendotzea. Are ederragoa lan hori euskararen bidez eta bere mesederako egiten bada. Lastima litzateke jarrera defentsiboen eraginez herri-komunikabideen aukera galtzea.

* ARKO ELKARTEKOA

USTEAK USTE

OSPITALA

Herriak erdialdean duen espazio zabal probetxagarri eta zentrikoari buruz ari naiz, neurri handi batean desaprobetxatuta aurki dezakegun Ospital Santu Zaharraz haiz zuzen.

Zaharberritzeko premia larrian egon arren ere, biltzen ditu horma sendoen artean zenbait "zerbitzu": Gaztetxea, Ludoteka, Arrasate Press, ATB, frantziskotarren dependentzia zenbait barne, baina ez dakit sarri jabetzen ote garen eraikuntza honen egoera tamalgarriaz, gogoratu teilatu ertz pare bat jausi dela dagoeneko, ARKOren egoitza hirugarren mundutarra dela, Gaztetxearen egoeraz gehiegi berba egitea ere ez dela komeni...

Udalak laupabost urtetan izendatu ditu edifizio hau berritzeko diruak baina elizarekin topo egin eta dagoenetan jarraitu beharko du oraingo, auskalo zenbat denboran, hainbeste urtetan zutik iraun duen eraikuntzak tente jarraitzeko beste indar izango duelakoan. Herriarena den Ospitalak, aurrez destinu ezagunak dituen arren, pentsa ze joku eman dezakeen ekimen ezberdinen gauzutzerako.

JON GARAI


Ongi aukeratu ahal izan dezazun

Gizonezkoentzako erropa

Egizabal

Gizonezko eta emakumeentzako oinetakoak

Bidekurutzeta, 13 Tfnoa: 76 12 28 BERGARA



Hirigintza saileko arduradunak herriko planoak aztertzen.

Geroko Arrasate marrazten Plan Orokorraren bidez

Arrasateko Plan Orokorra erredaktatzeko egitasmoa martxan dago. Plan Orokorrak 1985etik indarrean dauden Arau Subsidiarioak ordezkatuko ditu. Arrasateko lurzoruen eta horren erabileraren ordenamendua izango da Plan Orokorra: datozen 10-15 urteetan herriaren garapena markatuko duen arau urbanistikoaren bilduma.

Udaleko hirigintzako arduradunen iritziz, ez da pentsatzekoa Arrasate hazi egingo denik hurrengo 10 urteetan, baina biztanle-gez gutxitu ere ez dela asko gutxituko uste dute; aurrikusitako kalkuluen arabera, %5eko gutxitze bat edozein kasutan. Hori dela eta, ez da "plan desarrollista" izango, prentsurrekoan zehaztu zuten bezala.

Herriarren partaidetza ahalik eta zabalena nahi du Udalak Plan hau erredaktatzeko, eta horregatik herriko 200 bat elkarte, enpresa eta erakundekin kontaktuan jarri da iradokizun edo sugerentziak jasotzeko. Datozen asteetan, lau bilera ere izango dituzte,

herriko lau arlo hauetako ordezkariekin: industria, zerbitzuak, inbulariak eta teknikariak. Udalak herritarrek prozesuan parte har dezaten eskatu du, orain delako gauzak proposatzeko momentua, behin arautu ondoren protestatzea zailagoa izango da eta.

Lehen kontsulta hauen ondoren, udal teknikariek planaren aurrelaburpena erredaktatuko dute 1994ean zehar, eta zirriborro hori ezagutzera emango dute urtebete barru edo. Publikoan aurkeztu ostean, alegazioak egiteko epea egongo da, korporazioak Plana onetsi aurretik.

Planaren erredakzioak luze joko du, 1996 arte. Lehenbizi, arau subsidiarioen akatsak neurtzen hasi dira, Plan berriak errepika ez dituztenak. Tresna malgu bat lortu nahi du Udalak, murriztailea beharrez, garapenerako aukerak irekitzen dituena. Oraingo arauen kasuan, askotan zuzendu egin behar izan dituzte zenbait aktuzio egiteko, aurrikusitakoa premiekin bat ez zetzorrelako.

Aurrekontu aldaketa

Udalaren aurtengo 3.100 milioi PTako aurrekontuan aldaketak ezarri ditu udalak, gastu batzuk gora egin dutelako. 67 milioi PTakoa izan da desfasea, eta gehien hasi diren partidak Erdigunean egin beharreko obrak (11 milioi) eta Amaia antzokiko lanak (8,5 milioi) izan dira. Egoera hori zuzentzeko, beste atal batzuetan murrizketak gertatu dira. Mojatetik atletismo pista egiten Adibidez, ez da ezer inbertituko eta horrela 25 milioi aurreratuko dira. Udal bulegoen eraldaketa ere egiteko utziko da (13 milioi). Kontuen aldaketa joan den ostiraleko plenoan onartu zen, sozialisten aurkako botoekin. PSE-EEK aurrekontuen lehen idazketa ez zuen onartu, eta beraz, zuzenketa ere ez, Paco Garcia zinegotziak azaldu zuenez.

PSE-EE eta ikastolentzako laguntzak

PSE-EEK herriko ikastolei ematen zaizkien diru-laguntzei buruzko txostena eskatu dio udal idazkariari. Sozialisten iritziz, "ikastetxe pribatuei emandako laguntzetan irregulartasunak egon daitezke", Hezkuntza sailetik ematen zaizkien laguntzei gain, gai berengatik udaletxetik ere dirua lortzen omen dutelako.

PEUGEOT - TALBOT
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



Kale-argirik ez dakigu, baina errege kabalgata egongo da aurtengo Gabonetan.

Gabonetako argien auzia airean dago oraindik

Gabonetako kale-argiak direla eta sortutako polemika ez da konpondu oraindik. Hiru milioi pezeta daude aurrekontuetan (EAJ eta PSE-EEk onaturik) erdigunea argi horiekin dotoretzeko, baina Gobernu Batzordeak ez du gastu hori baimendu oraindik (HB eta EA aurka zeudelako).

Gobernu Batzordean, HBk 2 ordezkari ditu, beste 2 EAK eta beste bi EAJk: ez da plenoko gehiengo bera eta jeltzaleak gutxiengoan daude. Batzordeko ezezkoaren aurrean, EAJk erregu bat egin zuen azken plenoan, argiak kontratatuzko agindua alkateari eskatuz. Alkateak erantzun zuenez, arra-

zoi teknikoak izan ziren auzia Gobernu Batzordean atzera botatzeko motiboa, baina gehiago dirudi alde bakoitzak bere hasierako iritzia eusten diola.

Hirigintza batzordean ukitu zen gaia berriro, eta diktamena zuzendu egin zuten, alkateak aipatutako arazo teknikoak ebitatzeko. Diktamena berriro iritsiko da Gobernu Batzordera, eta orduan ikusi behar zer gertatzen den: baliteke giltza EAren esku egotea, hirigintza batzordean argiak adjudikatzearen alde bozkatu baitzuen. Bitartean, HBtik eta EAJtik diotenez, ez dute bandera egin nahi arazo konkretu honetan.

Lucio Garay enpresako gatazka

LAB sindikatuak Aretxabaletako Lucio Garay S.A. enpresan gertatutako kasu bat salatu du. Duela hiru urte hasitako gatazka baten ondorioz, legez kanpoko kontratu batzuk zirela eta, orain hiru langile kanporatu nahi dituzte. LABek agiri batean salatu duenez, enpresa horretako ugazabak, Jose Uribealgok, "mehatxu egin du" hiru langile horiek enpresan geratzen badira, itxi egingo duela lantegia, eta Zaragozara eroango duela enpresa. Arazoa epaitegian dago bitartean.

Gatzagako gatazka

Gatzaga herriari izena ematen dion gatzaga berreskuratzeko plan bat aztertzen hasi dira Laintz eta Arkeolan elkarteak, Gatzagako udalaren eta Deba Garaiko Mankomunitatearen enkariguz. Gatzaga ateratzeko instalazioak konpontzearekin, herriak bere ondare industrial, kultural eta historikoaren parte handi bat berreskuratuko luke.



LASAGABASTER


ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

KIUB: hamar urte zerbitzuan

Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Buelgoak (KIUB edo OMIC delakoak) 10 urte bete ditu egun hauetan. Azoka plazako bulego bat da zerbitzu honen egoitza eta bertan Antton Fernandezek atentitzen du goizez eta arratsaldez. Hamar urte hauetan kontsumitzaileen artean gero eta ezagunago egin da KIUBa, eta kontsulta eta erreklamazioen kopurua gora doa etengabe. Iazko lehen 9 hilabetetan, adibidez, 388 kasu atenditu zituzten KIUBean; aurtengo epe berean, 514.

Kontsulta soilez gain, erreklamazio kasuetan bitartekari lanak egiten ditu Fernandezek. Aurten 53 bitartekaritza egin ditu eta % 66 konpondu. Kasu hauek, den-dei buruzkoak baino, zerbitzu pribatuei buruzkoak iza-



Antton Fernandez KIUBeko bere bulegoan, azoka plazan.

ten dira normalean, etxeko konponketak eta horrelakoak.

Baina azoka plazako kontsultez gain, KIUBaren zeregin nagusia ikastetxeetara zuzentzen da. "Hezkuntzari begira egiten dugu lan gehien,

helduentzako gauzak prestatzea oso zaila da eta", esaten digu KIUBeko arduradunak. Irakasleei ikastaroak eman izan dizkiete, publizitate, ekologia eta kontsumo irakaskuntzaren inguruan, eta laster

beste bat eskainiko du KIUBek, jostailuen gainean. Irakasleen bidez, kontsumoaren ardura umeengan piztea da helburua.

Antton Fernandez pozik dago hamar urte hauen balantzearekin: "Igertzen da jendea hasi dela etortzen, gero eta gehiago gainera". Fernandez 1988tik dago finko bertan, 85etik aritu izan zen arren txandaka lanean KIUBean. Nolanahi er, agian azoka plazako egoitza baino zerbaitegokiagoa nahiago luke KIUBarentzat. "Oraingo leku hau, azokan eta jende-aurrean, ageri-agerian dago eta jendea beldur pixka batekin etortzen da", esaten digu Fernandezek bulegoko kristalera handira begira. "Hori jendea atzera botatzen duen arrazoia izan liteke".



UEUren IV. Arrasateko Ihardunaldiak
Monterron Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan
AEDren X. Urteurrenaren barruan

Azaroak 23, asteartea

HITZALDIA: Euskaldun berriak: euskara ikasteko eta euskaraz aritzeko dauden esperientzia desberdinak

HIZLARIAK: Josu Izquierdo
Iñaki Izarzelaia

ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA





Luis Uranga, Javier Expósito eta John Toshack Errealekoak Arrasaten izan genituen joan zen asteazkenean. Ez ziren Erreale-rako jokalaria fitxatzera etorri. Astoren enpresara etorri ziren, berau ezagutzeko

gogoia baitzuten. Astorek Errealeko jokariak jasaten ditu, eta aurrerantzean ere horrela izango dela espero da. Argazkikoak, **Luis Uranga** errealeko presidentea eta **Iñaki Otegi** gerentea dituzue.

EPELDE



Jose Miguel Murillo eta Dioni Mateo irailaren 18an ezkondu ziren. Zorionak!

Jendeak loteria tokatuko zaion esperantza dauka, horregatik, hasi da dezimok erosten. Zaragoza aldeko gizon batek Arrasateko Ruiz de Alegria administraziokoei zenbaki bat gorde diezaioten eskatu die. Gizon honek, 17.800 zenbakiak saria ekarriko duela uste du, horregatik zenbaki horretatik hainbat dezimo erosi ditu.



**OSORIK
PUB**
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**Plus Ultra
taberna**
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

LEZIZ
ERAIKUNTZAK
Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Joan zen asteazkenean, Danok Bat elkarteko teilatua botatzera zihoazenean, gerra zibil garaiko bonba aurkitu zuten langile batzuk. 40 zmtako luzera zuen bonbak eta, arratsaldean ertzaintzako artezilariek desaktibatu zuten. Teilatuetan katuak eta txoriak ibiltzen direla bagenekien, baina honelako trasterik egongo zenik...



Hies Ekimenekoen Adibidez ekitaldirako, kanta bat prestatzen ari dira herriko eta inguruko hainbat musikari. Kanta Jose Ramon Vitoria, Arrasate Musikaleko zuzendariak konposa-

tu du. Baina beste batzuk ere parte hartzen dute: Gerardo Mendizabalek pianoa jotzen du, David Arrietak abestu eta gaiteroak ere taldean daude. Abestia entzuteko zai gaudel!

IZEN PROPIOAK

● **Rosa Mondragon**, 26 urte, aukeratu dute udaletxean emakumeen berdintasunerako agente bezala lan egiteko. Rosa aramoiotarra da, eta kazetaritzan lizentziatua. Aurrez, Arrasate Pressen egon zen lanean.

● **Aitor Sarasua**, 26 urte, bigarren geratu zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusiko laugarren kanporaketan. Aitor atxabaltarra da, eta injinaritza eginda dauka. Orain Kanboko ikastolan ari da lanean.

● Udal irratirako aukeratu diren langileak hauek dira: **Patxi Montero**, 27 urte, arrasatearra. Patxi, nekazal injinari teknikoa da eta udaletxean nekazal teknikari bezela lan egin zuen.


Nerea Zubiete, 30 urte, eskoriatzarra. Kazetaritzan lizentziatua da eta ETBn lanean aritu izana.

SUPERMERCATUAK

**LASTER
ARRASATEN!!!**

Super BM

Zurgin Kalea,
Tfn: 79 26 00
ARRASATE




**ARRASATE
KIROLAK**



KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT

Astore, Reebok, Nike,
Adidas, Mito, Karhu, Avia, Saucony, Quic-
ksilver, Libero, Linea 7, Asics, Salewa,
Boreal, Bestard, Ellesse,
Lutha, O'Neill, Think Pink



Kirol jantzieta
ARABA ETORBIDEA

Kalitatea, prezioa, onak
ARRASATE
IFUOA, 77 14 86



Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Liderrak euren tokietan finkatuz doaz

Zazpi jardunaldiren ostean, nahiko perfiatuta daude Zaldibarko sailkapen taulak. Lau taldeen lidergoan Suministros Ugarte, Argi Ibili, Fosforos eta AC Surcos dauzkagu. Faboritotzat jo genitzakeen horietarik hiru gutxienez, eta sorpresatxo bakarra AC Surcos taldearen ibilbidea izan daiteke. Iaz, 2. faserako sailkatu zen talde hori, baina ez zen aurten bezain ederto aritu txapelketan. Kontuan izan, bestetik, Argi Ibilik bi puntuko

zigorra duela. Zigorrekin bueltaka, beste bi puntu kendu behar zaizkio aste honetan Borrokn Roll taldeari, arbitro txarragatik berriro ere. Gauzek horrela segitu ezkerro, laster sailkapen "faltsuak" izango ditugu, eta ez da egongo talderik, dagozkion puntuak tauletan zuzen jarrita daukarnik. Hurrengo asterako, bestetik, partidu bero-beroak daude jardunaldian: ea horrek eguraldi hotz hau konpentsatzen laguntzen duen!



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA

25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria
Arrisku gerentea

Boulevard, 11 5º-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE



Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	7	7	0	0	45	8	14
TRIKITI	7	7	0	0	38	8	14
ARLUTZ	7	6	0	1	33	11	12
ANBOTOSTE KT	7	5	1	1	21	8	11
BERANGO SUKAL.	7	5	0	2	25	11	10
JEY JULIWER	7	4	2	1	25	12	10
ZOTZ	7	5	0	2	28	28	10
SOKOAKOAK	7	4	0	3	26	26	8
UGLYS TXINATO	7	3	1	3	23	23	7
ALLA KUIDAUS	7	3	0	4	19	24	6
BIZKORRAK AVE. T.	7	2	2	3	19	25	6
WHISKERIA LINDE	7	3	0	4	15	23	6
KOKKAS	7	2	1	4	19	20	5
AUF DEM KOFFER	7	2	0	5	13	28	4
BAYERN LENITZ	7	2	0	5	11	28	4
RESAKAS	7	1	1	5	18	30	3
IKATZ	7	1	1	5	18	40	3
FRAGUEL GOL	7	1	1	5	10	17	3
ETXE MOBIL.	7	1	0	6	15	33	2
EUSKAL INDARRA	7	1	0	6	15	33	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	7	7	0	0	49	17	14
ZULOAK	7	5	2	0	28	16	12
LEINTZ GARAGAR.	7	5	1	1	39	13	11
DANOK LAGUN	7	3	4	0	16	10	10
ARR. KIROLAK	7	5	0	2	22	18	10
IRATI STS	7	4	1	2	28	17	9
ALPEN KRAUSSER	7	4	1	2	33	38	9
BUKANAK	7	4	0	3	32	17	8
BETRAYER	7	3	1	3	30	26	7
TORNKOTEAK	7	3	1	3	24	26	7
OJO AVISORE	7	2	2	3	29	33	6
GANBELAS	7	3	0	4	26	26	6
NOTXINGAN FLO.	7	2	2	3	20	23	6
DIEGO ANTONIO	7	2	1	4	25	28	5
KOPYPREST	7	2	1	4	21	28	5
FANCY BOIS	7	1	2	4	21	21	4
EXC. LETE	7	0	4	3	15	28	4
OOOLE	7	2	0	5	14	27	4
MONTERREY Z.B.	7	1	1	5	22	29	3
ATXANTA KE TE...	7	0	0	7	12	56	0

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	7	6	1	0	42	7	13
ARR. KRISTALDEGIA	7	5	2	0	32	16	12
LOS HEREDIA	7	6	0	1	22	14	12
NABARROS	7	5	0	2	21	11	10
MIKELOS	7	4	1	2	27	16	9
KIRTEN TROPEL	7	3	2	2	19	14	8
KAKAJAURI	7	3	2	2	19	14	8
PEPELUS	7	3	1	3	30	19	7
ADELAIDA HAIZEA	7	2	3	2	17	17	7
TXOKO TABERNA	7	3	1	3	13	17	7
MOTZ	7	3	0	4	22	20	6
SIBILUS ROVER	7	3	0	4	14	15	6
LOS DALTON	7	2	2	3	32	31	6
MZK GANBELAS	7	2	2	3	21	23	6
HIREI	7	2	2	3	23	28	6
BORROCKN ROLL	7	3	0	4	19	37	6
LEYA	7	2	1	4	19	37	5
FOTO IMAGEN	7	1	2	4	19	27	4
POTOSORRI	7	1	0	6	9	20	2
CORINTO TABERNA	7	0	0	7	14	51	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC SURCOS	7	7	0	0	43	14	14
ZULUS	7	6	1	0	55	24	13
CARBUROS	7	4	3	0	31	12	11
TOVARIXTX	7	5	1	1	26	17	11
POTROAK LORATEGI	7	4	2	1	34	19	10
REVOLUTION ROCK	7	5	0	2	26	15	10
TUTTIFRUTI	7	4	2	1	34	22	10
KRISKIBALDA	7	4	1	2	27	16	9
NUEVO TABERNA	7	4	1	2	23	15	9
LASO ARREGI	7	4	1	2	28	17	9
FRANCISCANERR	7	4	0	3	30	22	8
GURE LEKU	7	2	1	4	21	30	5
BODISCA	7	2	1	0	16	25	5
LOS DIMY	7	0	4	3	15	21	4
SOLANO 7 MARES	7	1	2	4	18	42	4
MACCABI DE LEV.	7	1	1	5	16	27	3
ILUNA TABERNA	7	1	1	5	18	47	3
KOAK LAIT	7	1	0	6	19	36	2
ELISABETH	7	0	0	7	15	46	0
EZKINAKO HONTZAK	7	0	0	7	12	41	0

Autokarabanak alokatzen dira!

METS

T A I L E R R A K

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkio piezak eta osagarriak.



ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa berria: Kanpatorpea, 2 (Parrokia ondoan) ETORRI IKUSTERA!

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!

RUTH GATZAGA



- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta

Olarke kantoiak. Tfnoa: 79 59 57 ARRASATE

BELARRIRA

Hurrengo asteburu-rako, 8. jardunaldirako, partidu interesgarri mordoxka bat daukagu, goiko postuetan lehian ari diren taldeen artean. Hauetxek nabarmenduko genituzke guk: Betraye - Zuloak, Argi Ibili - Lenitz Garagardotegia, Carbueros - Zulus, AC Surcos - Revolution Rock, eta Arrasate Kristaldegia - Mikelos. Emoziorik ez da faitako, beraz.

◆ **Alboko sake okerak.** Badirudi jende askok ez dituela oraindik Zaldibar-ko txapelketako arauak ezagutzen, behintzat alboko sakeei dagokienez. Beti buruaren gainetik atera behar da, futbol 'handian' bezala, ez du balio azpitik ateratzeak, futbol-salan egiten den bezala. Zaldibarrren ere buru-gainetik atera behar dira sakeak eta, gainera, sakea egiteko ez du balio frontoi ondoko harmailara igotzea. Arau hauek ez betetzeagatik falta zigortzen dute arbitroek. Adi beraz.

◆ **Gora Garagartz!** Garagartz auzoko futbolarren gloria, Auf dem Koffer taldea, hutsaren pare utzi genuen joan den astean, baina orain zuzendu beharrean gaude. Bigarren partidua irabazi dute jarraian, eta honezkero euren benetako bi puntuak daukate (saikapenean laurekin azaltzen dira, baina bi deskontatu behar zaizkie zigor batengatik). Zorionak, beraz, garagartzarrei.

EMAITZAK

A TALDEA

Berango Sukaldeak 4 - Etxe Mobiliario 2
Auf dem Koffer 4 - Fraguél Gol 3
Anbostoste KT 1 - Jey Juliwer 1
Alla Kuidaus 2 - Resakas 1
Arlutz 0 - Suministros Ugarte 2
Bayern Lenitz 2 - Uglyx Txinato 3
Bizkorak Avenida tab. 2 - Zotz 6
Euskal Indarra 2 - Trikiti 5
Ikatz 3 - Sokoakoak 9
Koxkas 1 - Whiskeria Linde 3

B TALDEA

Bukanak 2 - Diego Antonio 3
Atxanta ke te merece 3 - Fancy Bois 4
Argi Ibili 3 - Irati STS 1
Alpen Krausser 1 - Leintz Garagardotegia 10
Arrasate Kirolak 4 - Notxingan Florest 3
Betraye 5 - Ooole 0
Danok Lagun 1 - Zuloak 1
Excavaciones Lete 3 - Ojo Avisore 3
Ganbelas 5 - Monterrey Zubi Bel 3
Kopyprest 1 - Tronkoteak 1

C TALDEA

Fosforos 6 - Hirei 1
Txoko Taberna 2 - Kirten Tropel 0
Arrasate Kristaldegia 6 - Los Dalton 3
Adelaida Haizea 3 - Mikelos 1
Corinto Taberna 1 - MZK Ganbelas 7
Borrockn Roll 6 - Pepelus 3
Foto Imagen 0 - Sibilius Rover 3
Kakajauri 4 - Nabarros 1
Leya 1 - Motz 5
Los Heredia 3 - Potrosorri 1

D TALDEA

Elisabeth 1 - Franciscanerr 8
Bodisca 0 - Kriskibalda 6
Iluna Taberna 2 - Laso Arregi 9
AC Surcos 4 - Maccabi de levantar 3
Nuevo Taberna 0 - Revolution Rock 4
Carbueros 3 - Tovarixtx 3
Ezkiñako Hontzak 3 - Zulus 12
Gure Leku 3 - Solano 7 Mares
Koak Lait 3 - Potroak Lorategi 7
Los Dimy 1 - Tuttifrutti 2



PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

Deba Garaia Inmobiliaria



Inmueble eta finantza agentzia

Iturriotz, 23 etxebehea ARRASATE
Tfnoa: 77 13 02 / 77 14 27

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 20

Zaldibar

- 08.50 Hirei - Potrosorri
- 10.00 Alpen Krausser - Notxingan Florest
- 11.00 Euskal Indarra - Sokoakoak
- 12.00 Nuevo Taberna - Tovarixtx
- 13.00 Franciscanerr - Tuttifruiti
- 14.00 Arrasate Kirolak - Ooole
- 15.00 Berango Sukaldeak - Fraguél Gol
- 16.00 Elisabeth - Kriskibalda
- 17.00 Ganbelas - Kopiprest
- 18.00 Anbotoste KT - Resakas
- 19.00 Koak Lait - Los Dimy

Iturripe A

- 10.00 Betraye - Zuloak
- 11.00 Ikatz - Koxkas
- 12.00 Bukanak - Fancy Bois
- 13.00 Alla Kuidaus - Suministros Ugarte
- 15.00 Arlutz - Uglyx Txinato
- 16.00 Argi Ibilu - Lenitz Garagardotegia
- 17.00 Bayern Lenitz - Zotz
- 18.00 Danok Lagun - Ojo Avisore

Iturripe B

- 10.00 Carbueros - Zulus
- 11.00 Fosforos - Kirten Tropel
- 12.00 Txoko Taberna - Los Dalton
- 13.00 Gure Leku - Potroak Lorategi
- 15.00 Ezkiñako Hontzak - Solano 7 Mares
- 16.00 Auf dem Koffer - Jay Juliwer
- 17.00 AC Surcos - Revolution Rock
- 18.00 Excavaciones Lete - Monterrey Zubi Bel

Igandea 21

Zaldibar

- 08.50 Iluna Taberna - Maccabi de levantar
- 10.00 Corinto Taberna - Pepelus
- 11.00 Atxanta ke te merece - Irati STS
- 12.00 Borrocn Roll - Sibilius Rover
- 13.00 Adealaida Haizea - MZK Ganbelas

Iturripe A

- 10.00 Bizkorak Avenida Taberna - Trikiti
- 11.00 Diego Antonio - Tronkoteak
- 12.00 Etxe Mobiliario - Wiskeria Linde
- 13.00 Bodisca - Laso Arregi

Iturripe B

- 10.00 Leya - Los Heredia
- 11.00 Foto Imagen - Nabarros
- 12.00 Kakajauri - Motz
- 13.00 Arrasate Kristaldegia - Mikelos



Zigor-kronika eta porterien gorabeherak

Ohitura ere hartu dugu zigorrak komentatzeko. Oraingo honetan, Borrocn Roll taldea da zigortutakoa. Arbitratze kaskarragatik, beste kasu gehienetan bezala, bi puntu gutxiago. Partidu polemikoa, AC Surcos - Maccabi lehia izan zen. 4-3 amaitu zen partidua, liskar giroan eta ia berrirondoka. Borrocn Roll taldeko arbitroak ez zuen joko zikina moztzen jakin, eta hori dela eta, erruduntzat jo dute antolatzaileek eta zigortzea erabaki dute.

Asteroko gorabehera hauetatik aparte, porterien auzia ere aipatuko dugu oraingo honetan. Bai Iturripen eta bai Zaldibarren, nahiko hondatuta daude porteriak; nahita apurtu di-

tuztela dirudi. Iturripeko kasuan, Udalarekin kontaktuan jarri dira antolatzaileak, eta injinerutzako ikastetxe berria amaitzen dutenean tratatuko omen dute puntu hori. Behar bada datorren denboraldirako, beraz.

Zaldibarko porteriak antolakuntza berarenak dira. Kontua da, txapelketarik jokatzeko ez denean, frontoia- ren atzekaldean jartzen dituztela porteriak. Gero, handik hartu egiten dituzte batzuek beren kasa futboleantzeko, gero berriro desmontatu barik askotan. Ondorioz, frontoira joaten diren pilotazaleentzat traba handia izaten dira porteriak, eta hauek, deskuiduan edo nahita, gero eta gaizkiago tratatuta daude.



Parques y Jardines


Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Arriortuaren erredua eta gestioko teknika berriak onuragarriak direla uste du Javier Mongelosek.

Javier Mongelos

“Egoera zailak gainditzeko jakin izan du Arrasatek”

Luis Fernandez

Javier Mongelos Mondragon Korporazio Kooperatiboko (MCCko) Kontseilu Nagusiko lehendakaria da, kooperatiben taldeko egituraren goren burua, nolabait esateko. Egoera ekonomiko iluna bizi du Arrasatek, ez da hau inorentzat sekretua, eta Arrasateko gizarte-bizitzan eta ekonomian kooperatibek duten garrantzia kontuan harturik, gai ekonomikoetan finkatu dugu elkarriketa hau.

— Kooperatiben taldea merkatu berrietara zabaltzen da, baina ekonomiaren nazioartetzearekin, lehia gero eta gogorragoa ere badator.

— Egiazki, testuinguru ekonomiko berrian aurrera egin nahi badugu, nazioartera zabaltzeko alternatiba beharrezko eta premiazkoa da. Europako Komunitatean 1986an sartzearekin, ekonomia Europaren eta munduaren lehiara ireki zaigu. Ondorioz, lehiari ditugun enpresak ez dira betiko ezagun haiek, gure gestio eta jardueraren beretsuak zeuzkaten haiek, baizik eta beste inguru teknologiko, finantziario edo komertzial ba-

tean oso erraz mugitzen diren enpresa handiak dira. Euskadiko historia industrialean sekulako beherakada kalitatibo eta kuantitaboa da hau.

Enpresa handi hauek 1986a arte babestuta zegoen gure barne merkatua inbaditu dute. Ulertzeko, esan dezagun, adibidez, elektragailuen lerro zurian Fagorren lehiakide historikoak Balay edo Corberó zirela. Orain markak besterik ez dira horiek, benetako lehiakideak Siemens-Bosch, Electrolux edo Whirlpool dira eta, mundu mailako hedapena duten enpresak. Hain zuzen, esportazio eta nazioartetzeak, bere zentzu zabalenean,

enpresa lehia-gune berrira egokitzea du helburu, merkatuak zabaltzea gure produktio-mailak igotzeko eta horrekin enplegua hazteko. Hitz batean, maila berrietara iristea enpresako alderdi guztietan, hala nola kalitate, kostu, teknologia, katalogo zein bezeroarekiko zerbitzuan, mundu-merkatuan enpresa bezala indartzeko.

— Zer iruditzen zaizu Arrasateko egoera industrialia? Hor dugu UCEM taldeko enpresen azken adibidea.

— Asko kezkatzen nau, izan ere prozesua, duela urte batzuetatik hona dator eta

okerrera doa, argi dago. Union Cerrajerako kasu konkretuan ez dut ezer deskubritzen gainbehera industrialora orain urte asko hasi zela esaten badut, eta orain istorio horren azken ataletan gaudela. Hala ere, egoera zaileri aurre egiten eta gaingitzen jakin izan duen herria da hau, daukan sormen gaitasun handiagatik, eta ez daukat dudarik giro ekonomikoa hobetzen hasi bezain laster joera aldatu egingo dela.

Kooperatiben kasuan, beren historian zehar batzuk desagertu egin ziratekeela esan beharra dago, ez baliete besteek lagundu izan. Zentzu horretan, kooperatiben arteko elkartzasuna beren iraupe-nerako giltza izan dela azpimarratu behar da.

— Krisia latza da, eta kooperatiba industrialetan eragiten ari da bereziki. Nola ari da garatzen krisia? Hondoan jo dugu, batzuek dioten bezala?

— Bai, hondoan jo dugula dirudi, baina oraindik ez da ikusten berriro gora goazenik. Edozein modutan, azken 30 urteetako krisirik larriena jasaten ari garela esango nuke. Mondragon Korporazioan aspalditik darabilgu indize bat, merkatuko eskarien garapena neurtzen duena eta fidagarria dela demostratu dena (ikus grafikoa). 1989tik honako garapenean ikus daitekeenez, beherakada izugarriekin inoiz ez bezalako maila negatiboetara iritsi gara. Krisia industria arloan zuzenean ari da eragiten, maila desberdinean segun eta zein arlotan. Makina-erramintarena da kalteuena, inbertsioak gelditzean igerri zuen lehena hori izan zelako; eta horrek euskal industriarengan eragin berezia dauka, batez ere Gipuzkoakoan, arlo honek gure probintzian duen hedapen zabalagatik. Gerora beste arlo batzuk sartu dira krisian eta 1992tik, eraikuntza eta automobilaren gainbehera ikusten

ari gara.

Pezetaren azken debaluzioek beste merkatu batzuetarako irekiera erraztu dute neurri batean, eta esportazioan salmentak gora doazela ikusten hasiak gara. Hala ere, beste herrialde garatu batzuetan ere krisi bera ari dira jasaten, eta horrek gure salmenten gorakada galerazten du, eskari txiki eta eskaintza zabalago dagoelako dagoeneko.

— Finantzarloa. Euskadiko Kutxa edo Kaja Laboralaren jokabidea praktika kooperatibotik urruntzen ari dela esaten da, ez diela behar beste


fondo komunei...

— Ez, hori ez da egia. Euskadiko Kutxa, bankuen arlo osoa bezala, Espainiako Bankuaren aldetiko kontrol estu baten pean dago 85. urtearen ingurutik, eta arau zehatz batzuk betetzera behartuta dago bankuek hartzen dituzten arriskuak kontrolatzeko eta aurrezleen eskubi-deak gordetzeko. Betebehar hauek zorrotzu egin dira direktiba europarra indarrean dagoenetik, azken urteetan. Inguru berri horretan, beste garai batean posible ziren liberalitate altuko portaerak aldatu egin behar izan dira. No-

lanahi ere, esan beharra dago Euskadiko Kutxak praktika kooperatibo onenean segitzen duela, esan dizudan testuinguru horretan, eta mugimendu kooperatiboan, funtsezko erakundea izanik hor, elkartasun maila handi bati eusten dio eta eutsiko dio.


— Etorrizuz plangintzetan, banaketa-alorra indartzen duzue batipat; horrek ez du kooperatiben multzoa desorekatuko?

— MCCko uztaileko IV. Kongresuan onartu genituen oinarriko bost helburu dauzkagu gure enpresa-pla-



MCCn banaketa arloa garatu arren gehien, Mongelos-ek ez du industriari "dimisiorik" aurkeztu nahi.

ESKARI INDUSTRIALAREN BILAKAERA



netan: Bezeroaren satisfakzioa, Errentagarritasuna, Nazioartetzeta, Enpresa-garapena eta Gizarte-inplikazioa. Helburu hauek taldeko alor guztiei aplikatu dakizkieke, banaketari, industriari edo finantz-arloari. Baina alor bakoitzak oso egoera desberdina bizi du. Une honetan, inbertsioak egin eta salmentapuntu berriak eratu besterik ezin du egin banaketa-alorrek, bestela ez baita atzerriko banantzaile handiekin lehiatzeko gauza izango. Hor aukera bat daukagula uste dugu, eta garapen prozesu garrantzitsu batean gaude; arriskurik ez da falta, baina horixe da garapenerako eta lanpostuak sortzeko alternatiba. Industria taldean aipatutako bost helburuen betetzea lehiakortasuna hobetzetik pasatzen da. Ez dugu "dimititzen", inolaz ere, garapen industrialetik, baina gertatzen da banaketa ez dela taldearen garapena bezain ikusgarria. Berriro diot: ez dugu inondik inora

"dimititzen", eta Euskadi industrialara izango da, edo ez da izango, enplegu eta aberastasunetik hortik etorri behar dute.

— Lehen eta bigarren mailako kooperatibistak daudela esan daiteke?

— Ez. Desberdintasunak daude kooperatiben artean, beren norabide historikoagatik eta batipat beren negozioengatik, baina ez kooperatiba diren heinean, beren barneharremanetan. Mondragon Korporazioa mugitzen ari den testuinguru berrian, kooperatiben artean elkar-erlazio gehiago dago, eta lehen txikiak ziren kooperatibak, merkatu esparru estuan zebiltzanak, orain kanpora irteteko aukerarekin daude, katalogoak elkarrekin izanda eta gastuak murriztuz, Arlokako Agrupazioen bidez batuta. Hitz bitan, lehiarako askoz ere presatuago egongo dira, MCCren moduko talde handi baten barnean egoteak dakartzan onura guztiekin.

— Aurrejubilazioekin, ez ote da kooperatibista zintzo eta betikoen kapital humanoa galtzen ari?

— Bizi-legea da hori. Pertsonen bizitza laburra da nolabait, gizateriaren garapenean ez da ezer. Erakundeak, kooperatiben taldeak, etorkizunerako eta belaunaldi berrientzako balio dezan nahi badugu, pertsonon gaintetik egon behar du. Belaunaldi berriek txanda har diezaguten ahalegindu behar dugu, kooperatiben errealitatea egoera berrietara molda dezaten. Nik konfidantza daukat belaunaldi berriengan. Izan ere, zerbaitek inporta izan badigu kooperatibetan, formakuntza etengabea egon zedin izan da, kooperatiba bizitzeko talde presatuak egon zitezten. Orain, Europako Batasun estreinatuta berria.

— Espiritu kooperatiboan zuk daukazu konfidantza berbera ote dauka oinarriko kooperatibistak, lan-katean dagoenak?

— Teoria asko darabilgu, eta askotan zera gertatzen da, ohituraren poderioz, ez dugula egoera aski baloratzen. Baina zera esan dezaket: kooperatibek erabakitzen duten metabolismoak ez du zerikusirik elkarte anonimotako erabaki-metabolismoarekin. Zerikusirik ere ez. Eta hori badakite kooperatibako langileek. Baina kooperatibetan ohituta gaude informazio prozeduretara eta aldikako bileretara. Konparatzea falta zaigu, beste enpresa-errealitate batzuekin alde

ratze erlatiboan. Edonola ere, kooperatiben konstituzioak berak markatzen ditu subiranotasuna indarrean jartzeko garantiak, demokratikoki hautatutako partehartze eta kontrol organuen bidez. Kooperatiben negozioak sortzen dituen plusbaliak ahaztu barik, horiek kooperatibako langileengana itzultzen baitira, eta hori ez da hala gertatzen beste enpresa motetan, argi dagoenez.

— Arriortuaren eredua, toyotismoa eta abar aipatzen dira. Lan-arlotik produktio-katearen deshumanizazioa aipatu izan dute.

— Harritu egiten nau baieztapen horrek, bilatu nahi dena alderantzizkoa baita. Deshumanizazioa taylorismoa izan zela uste dut, non bakoitzak bere lantxoak zeukan, etengabe errepikatzen. Orain, langilearen gaitasun intelektuala produktio-arloan barneratu nahian gaitasun, langileak berak, elkarlanean, prozesu produktiboan eragina izan dezan, hobetzeko. Pertsonak, langileak, enpresari bere gaitasun osoa eman diezaiola nahi dugu, ez bakarrik fisikoa, baizik eta, batez ere, adimenezkoa, bizi-moduaren beste arloetan egiten duen bezala.

Gestio industrialaren prozesu desberdinen bategitea da, produktiboak, finantzetakoak, komertzialak... eta pertsonak aritzen dira horietan. Beharrezkoa da bakoitzak betetzen duen funtzioetik —hori ezagutzen baitu ondoen eta bertan baitu partehartze handiena— aportatzea bere iradokizunak. Pixkanaka, hortik etorriko dira gure enpresaren efikazia eta lehiakortasuna ahalik eta gehien hobetzeko beharrezko aldaketak. Azkenean, hori izango da, ez bakarrik lanpostuei eusteko modua, baita enplegua birsortzeko garai berri bat hasteko bidea ere.

● "Euskadi industrialara izango da, edo ez da izango, aberastasun eta enpleguak hortik etorri behar dute"



Karmeloren aurka partidu ona jokatu zuten, baina suerteak ez zuten lagundu.

Eskubaloia: estrainakoz galdu eta Madinabeitia soldadutzara

Arrasate Kirolak esku-baloia taldeak denboraldiko lehenbiziko partidua galdu zuten Iturripen joan den asteburuan. Oso aurkari latz eta gogorra egokitu zitzaizen modrauetarrei, Donostiako Karmelo, eta 19-21 galdu zuten azkenean. Eskualdeko 1. mailan zazpi partidu jokatu eta gero, galdutako lehenbizikoa izan da hau.

Donostiarren garaipenaren alde oso estua izan arren, beti atzetik egon ziren markagailuan arrasatearrak. Lehen zatian eskubaloia bikaina erakutsi zuten bi taldeek (11-12 atsedenean), eta bigarrean, suerte apur bat falta izan zitzaion Arrasate Kirolaki (poste ugari, adibidez), eta arbitroak ere ez zuten lagun-

du, ez horixe.

Nolabaiteko euforia giroa baretu egin du partidu honen emaitzak. Eskubaloia taldeak, iaz jaitsi eta gero, direktiba berriztu eta taldea indartu egin du, helburu argi batekin: berriro mailaz igotzea. Horregatik, emaitza hau atzerakada bat izan da klubeko arduradunen asmoetan. Edozein modutan, ondo kokatuta dago taulan. 1.a Pasaia da, partidu guztiak irabazi ondoren, eta 2. eta 3. postuetan parra daude Arrasate Kirolak eta Bergara. Aurrera begira, partidu zailagoak ditu egutegian Pasaia Arrasateko taldeak baino.

Arrasatek, dena den, beste eragozpen bat dauka

orain: Iñigo Madinabeitia soldadutzara doa asteazkenean. Aretxabaletako jokalaria Madina futbolariaren anaia da, eta denboraldiko indargarri bikainenetakoa izan da. Dena den, soldadutza Gasteizen dauka, eta partidu gehienak jokatzeko aukera izango du.

Hurrengo lehia Eibarren dauka Arrasate Kirolakek, Akondia taldearen aurka. Ez da partidu erraza izango, oso kantxa labainean jokatzen duelako Akondiak eta oso talde beteranoa delako: Arratekoak izandako jokari "errebelde" talde bat da Akondiarenekin oinarria. Datu bezala, Pasaia Eibarren irabazteko izan zituen zailtasunak: 11-12 juxtu-juxtu.

LABURRAK

Azken minutu latza

Beste garaipen bat (zortzi dagoeneko) Arrasate saskibaloia taldearen eskutik. Ordizian 71-77 irabazi zuten arrasatearrek, eta hor segitzen dute 2. mailako beren taldeko lidergoan. Joan den asteburuko partidua ez zuten emozio faltarik izan. Minutu bat falta zela, puntu bakarrak zegoen aurretik Arrasate. Gerardo eta Garitanok beste lau puntuz zabaldu zuten alde, eta ondoren, eztabaida bat izan zuten Ordiziako jokalariei batek eta Garitanok eta arbitroak teknikoak ezarri zitzaizkien Garitanori eta Ordiziako biri. Azkenean, garaipena dena den, eta Arrasateko taldean Gerardo Mondragon (21 puntu) eta Mikel Garitano 'Kurri' beragarra nabarmendu behar.

Atletismoa pista estalian

Pista estaliko atletismoko denboraldiko lehen jardunaldia joan den larunbatean jokatu zen Donostian. Arrasateetik 15 atleta joan ziren, eta horietarik lau, gutxienean markak lortu zituzten Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetarako. Honako hauek dira sailkatuak: 60 metroan, Aitor Arnaiz (7.00) eta Iñaki Mayor (7.03); 600 metroan Urko Bedia (1'34''), eta 800 metroan, Manuel Anguas (2'02'').

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Mendi
taberna
MENDI DA ZURE ETXEA
Maalako Arrabala, 4 Tfnoa: 79 20 54

PENALTIAK

● **Realeko manager eta entrenatzailea, John Toshack, Arrasaten izan zen asteartean Luis Uranga Realeko lehendakariarekin, Astore kirol-jantzi enpresa bisitatzeko. Datorren urterako Astore jantziak erroteko akordio batera iristea zen bisitaren arrazoia.**

● **Behobia - San Sebastian lasterketan parte hartzeo 120 lagunek eman zuten izena Arrasaten, Loramendu Kirolak dendan. Horietarik lasterketan lehenbizi sailkatu zena Javier Mentxaka izan zen, 29. sailkapen orokorrean, 1.08'29" denborarekin. Hurrengo Alfonso Luelmo (71.) izan zen. Lehen emakumezkoa Maria Pilar Valdezate izan zen.**

Hiru partidu galdua, Mondra bolada txarrean

Hasiera bikain batekin 3. mailako taulako goikaldean abiada hartu ostean, bolada txarrean sartu da Mondra. Arrasateko futbol taldeak hiru partidu galdu ditu segidan, eta plantila estu samarrarekin, hasierako giro optimista asko jaitsi da.

Joan den igandean, Santurtzi 3-0 irabazi zion Mondrari. Tartean, bi penalti eta bi espulsio, Moreno eta Madinarenak (azken honena, partiduko 12. minutuan, bi txartel gehiturik). Arbitroak etxe-koen alde egin zuela esan liteke, baina hala ere, egia da Mondra ez dela ari jokatzen lehen bezain ondo.

Mondraren beherakadaren arrazoietakoa bat plantila estua izatean da-

LASO



Moral aldetik beherakada igerrri dela dio Dibinok.

tza, Iñaki Zeziaga 'Dibino' entrenatzailearen ustez. 19 jokalaria ditu Mondrak, eta lesio eta gaisotasunekin beti egon dira bajak. Horren ondorioz, "igandero aldatu behar dut alineazioa", esplikatu du Dibinok, "eta jokalariai aldatu behar ditut denbo-

raldi osoan egoten diren lekutik". Alineatzeko zailtasunengatik, jokoa apur bat behera joatean, eta emaitza txarrak pilatzean, "Moral aldetik bajo dabil Mondra", onartzen du entrenatzaileak. "Ea denon artean jasotzen dugun", gehitzen du.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Santurtzi 3 - Mondra 0
Emakumezkoak: Gure Txokoa 0 - Mondra 1
2. regionala: Aloña Mendi 4 - Mondra 1
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 0 - Martutene 4
Jub. 2. maila: Arrasate 8 - Segura 4
Kadeteak, 1. maila: Aitzgorri 5 - Arrasate 0
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 1 - Urola 1
Haurrak: Bergara 3 - Arrasate 2
Hurrengoak:
3. maila: Mondra - Mungia. Atxabalpe, igandea, 15.15.

Saskibaloia

2. maila: Ordizia 71 - Arrasate 79
Sub-23: Arrasate 81 - Laramendi 79
Jub. neskek: Patterncam 53 - Juven B 56
Kadeteak, neskek: Irurak 47 - Arrasate B 16
Kadeteak, mutilak: Loramendi Kirolak 63 - Loiola A 61
Hurrengoak:
2. maila: Arrasate - Paules. Musakola, larunbata, 18.30.
Sub-23: At. San Sebastian - Arrasate. Donostia, lar.,

16.00.

Jub. mutilak: Arrasate A - Askatuak A. Musakola, igan., 11.30.
Arrasate B - Irurak B. Musakola, lar., 16.00.
Jub. neskek: Patterncam - Sasoeta. Musakola, igan., 12.00.
Kad., neskek: Arrasate A - Hondarribia A. San Viator, lar., 12.00.
Arrasate B - Bergara KE. San Viator, larunbata, 16.00.
Kad., mutilak: Don Bosco - Loramendi Kirolak. Errenteria, lar., 16.00.

Rugby

Euskal liga, 2. m.: Gautxori 0 - Arrasate 36
Jubenilak: Arrasate 12 - Ordizia 7
Hurrengoak:
Euskal liga, 2. m.: Arrasate - Bizkaia. Garagartza, igandea, 11.30.
Neskek (lagunartekoa): Arrasate - Universitarios. Garagartza, lar., 16.00.

Eskubaloia

1. eskualdekoa: Arrasate 19 - Karmelo 21
2. eskualdekoa: Arrasate 16 - Ereintza 26
Jubenilak: Arrasate 15 - Bergara 16
Hurrengoak:
1. eskualdekoa: Akondia - Arrasate. Eibar, igan., 12.00.
2. eskualdekoa: Pulpo - Arrasate. Zumaia, igan., 11.30.
Jubenilak: La Salle - Arrasate. Legazpi, lar., 19.45.

Futbol-sala

Erandiotarrak 5 - Brues 2

Pilota

Gipuzkoako klub artekoa:
Senior, binaka: Arrasate 22 - Billabona 12
Jub., banaka: Arrasate 18 - Bergara 5
Junior binaka: Peña Pagola 22 - Arrasate 13
Kad., binaka: Arrasate 22 - Alegi 3 (arrasatearrak 2. fasera sailkatuta)
Hurrengoak:
Jubenilak, banaka: Arrasate - Kukua.
Senior, binaka: Idiazabal - Arrasate.
Kad., binaka: Real Sociedad - Arrasate.

- Karatea
- Aerobic-a
- Sauna
- Solariuma



- Mantenimendu
- gimnasia
- Muskulazioa
- Squash-a
- Masaia

Kontzezino kalea, z/g. Tfnoa: 79 97 31 ARRASATE



Jan Viator Ikastetxeko ikasle zirenak ageri dira erretratu zahar honetan. Bertan ageri direnen adinarengatik, 1960an edo ateratakoa izan behar du.

Beheko iladan, ezkerretik eskumara, **Sagasta, R. Bolinaga, Perez, J.I. Gorostiza, Aristimuño, Agirreurreta, D. Arriola, Isas-**

mendi, Zumelaga, I. Agirre eta Bocos.

Goian, **J.R. Aguriondo, Stegmeier, Akizu, J.M. Palacio, Etxeberria, Leibar, A. Murua, L. Ginart, Etxeberria** eta **S. Aranbarri.**

3. iladan, **C. Mendikute, Balzategi, Ansoategi, J.J. Barrutiabengoa, J.A.**

Balardi, Calleja, Antia eta **Bidaburu.**

4. iladan, **J.J. Ayastuy, E. del Campo, M. Zubillaga, R. Celemín, Gorospe, Barrutia, J. Bedia** eta **Tx. Arzamendi.**

5. iladan, **J.M. Markaide, J. Mondragon, J. Abasolo, P. Narbaiza** eta **Nafarrate.**



Mondeo

MUGARRI

Mondeo



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

RKUZ

Sukaldeak

FAGOR 

Sukalde integratuak

Banatzaile Ofiziala

Mitarte, 3

Tfno-Fax: 77 04 55

ARETXABAETA



ALTZARIAK

ELEKTROGAILUAK

ETXEKO ALTZARIAK
DISEINUA - APAINKETA

TV - BIDEOA - SOINUA
expert  Banatzaile ofiziala

Araba Etorbidea, 20
Tfno - Fax: 79 23 51


Aretxabaeta ABARRA

Asuncion, 1
Tfnoa: 79 10 97

BS

MANGO

Postas, 5 eta 5 bis GASTEIZ
Tfnoa:(945) 23 04 48



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotsik, ez berorik, ez
soinurik...

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Bilbon, bi pertsona behar dira** pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 475 71 72. Oso merke.
- **Familia batek bi ohedun logela** eskaintzen du ikasle edo langileentzat. Konfortablea. Pentsio osoa, erdi pentsioa edo lo egiteko. Interesatuak Jose Luis Iñarra Pasealekua, 25, bajutik pasa.
- **Isaban apartamentua alokatzen da.** Sukaldegongela, komuna, 2 logela. Interesatuak (948) 11 14 58 tfnora deitu (8etatik 10etara). Juanan.
- **Deustun pisu bat betetzeko** pertsona bat falta da. Tfnoa: 79 14 71.
- **Etxebizitza salgai Obenerrekan.** 80 m². 3 logela, 2 bainu, saloia, sukaldea, berogailua, igo-gailua, eta ganbara ditu. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 61 95.
- **Injinartzako hiru ikasle pisu bila** Arrasaten. Mesedez, azkar-azkar deitu. Tfnoa: 79 41 69.
- **Pisua saltzen da Gasteizen.** Erdialdean. 130 m². Berritzea behar du. Tfnoa: (945) 13 07 27.
- **Gela bat bi oherekin** alokatze da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Apartamentua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitua eta kalefakzioaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gauzez deitu. Luis.
- **Donostiako Gros auzoan** neska bat behar dugu pisua osatzeko. Tfnoa: 29 32 90.
- **Aretxabaletan bi logela** alokagai, sukalderako eskubideaz. Tfnoa: 79 04 62.

Lana

- **Neska bat O.H.O.ko klaseak emateko prest dago.** Eta euskarazko klaseak ere ematen dira. Deitu 79 25 09 tfnora. Galdetu Anaz.
- **Unibertsitateko ikasle esperientziaduna** O.H.O.ko klaseak emateko prest. Tfnoa: 77 05 90. Aitziber.
- **Emakume esperientziaduna** pertsona nagusiak, umeak edo gaixoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **Haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko** neska bat prest. Deitu 77 06 48 tfnora. Dorleta.
- **Injinartzako 3. mailako ikasle** batek, dibujo klaseak emango lituzke (B.B.B. eta U.B.I.). Tfnoa: 79 98 70.
- **Emakumea prest umeak zaindu,** etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Biokimikako klaseak hartuko nituzke.** Urgentea. Deitu (94) 464 07 49 tfnora astegunetan eta 79 08 21ra astebukaeretan. Gauzez. Naia-ra.
- **Goizetan ingelesezko klaseak** hartuko nituzke. Bilboko 3. maila egiten ari naiz. Tfnoa: 79 28 49.
- **Enpresa-zientziak egindako** neskak klase partikularrik ematen ditu. O.H.O., B.B.B., U.B.I. edo enpresa-zientzietako ikasleei (mate, kontabilitatea,...). Tfnoa: 79 16 19.
- **Puerikultura titulu** eta esperientziadunak haurrekin edo haurtzaindegian lan egingo luke. Tfnoa: (945) 44 53 31. Eva. Aramaixo

Salerosketak

- **Egurrezko berogailua salgai.** ROCA markaduna. Deitu 79 07 25 tfnora.
- **Volkswagen Polo Classic salgai.** 58.000 Km. Deitu 79 86 69 tfnora.
- **Salgai Gameboy** bi jokurekin (9.000 PTA.) eta Nintendo bat bi jokurekin. (10.000 PTA.). Deitu 71 49 10 tfnora. Igor.
- **Fagor 100 litroko termoa salgai.** Prezio ona. Tfnoa: 71 07 73.
- **Estufa japoniar bat saltzen da.** Interesatuak dei egin 79 99 91 tfnora.
- **Estufa japoniarra salgai.** Prezio egokia. Kalentadore junkerra ere salgai. Tfnoa: 79 04 54.

Denetarik

- **Beroki bat galdu nuen asteazkenean.** Meca parean kotxeak garbitzeko dagoen tokian. Tfnoa: 79 90 57. Olatz.
- **Samciedo txakurrak salgai.** Pedigrudunak. Ar eta emea. Prezio interesgarria. Tfnoa: (945) 27 78 44.
- **Astean zehar,** gaueko 9ak inguru, Gasteiztik Eskoriatzarako bidea autoz egiten baduzu, deitu ALECOPera. Tfnoa: 79 50 11. Esther Perurena.
- **Betaurrekoak galdu nituen** joan den asteartean Arrasaten. Burdinezko markodunak. Deitu 79 89 48 tfnora 9etatik aurrera. Ainhoa.

Aste Gazte

Bekak

- Ingurugiro arloan ikerketak burutzeko 8 beka. Lizentziatura ikasketak 89tik aurrera amaitu dituztenei zuzendua. Epea: azaroaren 24a.
- Jose Miguel de Barandiaran Ikerketa Beka. Euskal Herriko ikerketa etnologikoak burutzeko. Epea: urtarrilak 31.

Bidaiak

- Abenduaren 31tik 9ra Londres eta Parisera, bus literan. 17.000 PTA, Errenteria-

tik irteada. Plaza gutxi gertatzen da.

Ikastaroak

- "Saltsa" ikastaroa Arrasaten, abenduaren 9tik 20ra, Arnaldo Patterson maisuaren eskutik, Musakolan. Matrakula: 3.500 PTA. Izenemateak gazteentzako Informazio Bulegoan.

Ihardunaldiak

- "Gazteak eta enplegua" azaroaren 20an: Ekonomia Soziala eta Autoenplegua.

Donostian, Antiguoko kultur etxean. Euskadiko Gaztediaren Kontseiluak antolatuta.

Lehiaketak


- Aretxabaletako Murruxoren VII Argazki Lehiaketa. Gaia: aukeran, mendia edo gai librea. Txuri beltz nahiz koloretan. Epea: abenduak 14.

Bosniarrentzat laguntza

- Arropa, botikak, jakiak, garbiketa gaiak, eta antzekoen beharrea daudela eta, Sebero Altubeko lokalean bilketa egiten ari dira. Azken eguna: igandean, azaroak 21ean.

"Gazte asko dago balio handia daukana eta hori atsegin-garria da zaharrago garenontzat, ez zaharregi baina zaharxeago garenontzat"

C. BERNAOLA KONPOSITORE OTXANDIOARRAK EGUNKARIAN



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Gaztainerre Jaialdi Mundiala

Azaroaren 20an
Arratsaldeko 5etatik
aurrera Herriko Plazan


250 Kg
gaztaina eta sagardoa

banatuko da
borondatearen truke

**Trikitilariak
txalaparta
hankapaloak
eta...**

**su ta gar
gaztainak erretzen**

AEDko Gazte Mobilak



Musika *Jaialdi*

AEDren hamargarren urtemuga eta ARRASATE PRESSen bostgarrena

**Mikel Markez
Anje Duhalde
Niko Etxart
Lanperri eta Miliku**

Antolatzaileak

AED.

Hamar urte egunez egun Arrasate euskalduntzen

ARKO. ARRASATE PRESS.

Ostiralero ^{Presi} Press

**BOST
urtez**

**ETA HAINBAT
SORPRESA!!**

Azaroak 26 • OSTIRALA
Gaueko 10etan
Arrasateko Kiroldegian




Z E R N A H I A G O ?

Ana Mugerza

Santa Barbarako Lorazaina

- Zein lore duzu gustokoen? Larrosa gorria.
- Egunean zenbat ordu egiten duzu lan? Zortzi.
- Zer moduz daude paittak? Nahiko harrikatuak, baina ondo.
- Zer lan egiten duzu parkean? Umeak bigilatu, belarra moztu, estankea garbitu...gauza asko.
- Anekdotat bat? Uf, astebete besterik ez daramat lanean eta!
- Zein beste lanbide izatea gustatuko litzazuke? Umezaintzako andereño.
- Zein izen jarriko zenioke txakur bati? "Zuri".
- Janari beroak edo hotzak? Beroak.
- Artilezko jertseak edo algodoizkoak? Algodoizkoak.
- Zoriontsu izateko formula bat? Lasai bizi, haizea hartu eta gauzetaz gehiegi ez arduratu.
- Ahal izanez gero, joango zinateke ilargira? Ez, beldurra ematen dit horrek.
- Zer egin duzu amets gaur? Ezer ere ez; haur txiki bat dut eta negarrez egon da gau osoan.
- Zeri diozu beldurra? Iluntasunari.



BERTSOAK

Berogailua

Berogailuak etxebizitzan beti uda eta negu, mesede asko eginik ere traba ere egiten du; uda garaia datorrenean guk beti oi degu kendu aparte nunbait beretzat aña toki beti izaten du.

San Juanetan goian zeudenez oraindik jaisteke bera, aurtengo urteak ez dizu eman geiegi opor aukera; geroztu inoiz egun batzutan berotik aseak gera; orain San Simon baño lenago berriro goian altxera?

JOXE MANUEL ARRIOLA



Agustin Larrañaga
Etxe-Andiko Sukaldaria

Etxe-Aundi

Jatetxea

— Zer gomandatuko zenioke ezkontza prestatzen ari den bikote bati?

— Beno, nik esango nioke hona etortzeko, gutxienez galdetzera, eta ez pentsatu Etxe-Aundi garestiegia denik. Eurek esandako prezioan proposatuko diet nik menua.

Oharra: Galdetze hutsagatik andregiak oparia jasoko du

OÑATIN, Torreauro 9. Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90

Zuen
ezkontza
gurekin
ospatzen
baduzue,
EZKONTZAKO
CAVA
GURE KONTU



CAVA DE COPPINI 1870

Arantzazu Ugarte

Euskal Herriko idazkera politena

Arantzazu Ugarte 17 urteko neska arrasatearra da. "Idazkeraren Artea" izeneko lehiaketan Euskal Herriko eta Gipuzkoako irabazle suertatu da. Ez da batere berritsua, hitzak tiraka atera behar zaskio. Ziur bere hitz polit eta goxoenak lumaren ferkaz paper gainean idazteko gordetzen dituela.



— Parte hartzen duzun lehenengo urtea da?

— Bai, egia esan lehiaketa ezagutzen nuen, baina sekula ez nintzen animatu idaztera, oso zaila ikusten bainuen. Baina aurtan zortea probatu nahi izan dut eta tira, badirudi ondo atera zaidala.

— Zein izan zen zure lehen erreakzioa emaitza jakin bezain laster?

— Uf! Ez nuen espero, gainera Tamayo paper-

dendako eskaparatean zeuden lanak ikusi ondoren, irabazleak horiek izango zirela pentsatu nuen. Gero telefonoz deitu zidaten eta amak hartu zuen. Amak berria eman zidanean ezin nuen sinistu ere egin.

— Eta normalki, idazten duzu lumaz?

— Ez, sekula ez dut luma erabiltzen, beti ari naiz boligrafoaz gora eta behera. Dena den, banuen etxean luma bat eta hura

erabiltzeko gogoia sentitu nuen egun batean. Lehiaketaz gogoratu nintzen eta paper baten bila joan nintzen Tamayora. Idazten hasi nintzen eta azkenean bi lan aurkeztu nituen. Gainera, ez zidan batere denborarik kendu, liburu bat hartu, pasarte batzuk idatzi nituen...eta kitto!

— Zer du zure letrak besteenek ez dutenik?

— Ez dakit. Oso ondo ulertzen dela esaten didate, baina nire letra baino politagoak direnak ere ikusi ditut. Dirudienez, letraren ulertotasuna asko baloratzen dute.

Dena den, beste zenbait arrasatear ere zoriendu beharra dago. Amaia Sainzek, Susana Martinek, Maria Olatz Amozarrainek eta Osane Lizarralde, beste kategoriatako zenbait sari irabazi dituzte eta. Zorionak!

AEDren "Arrasate 93" lehiaketan, partehartzaile ugari

Luzaroan eman dizuegu lehiaketa honen berri. Ez dakigu gure insistentzia horrek zerbaitetarako lagundu duen baina tira, partehartzaile ugari eta maila honeko lanak jaso dira AEDn, eta poztekoa da benetan. Hona hemen sail bakoitzeko partehartzaileen kopurua: Bertsoetan guztira 18 partehartzaile egon dira, 9 gaztetxo, 3 gazte eta 6 heldu. Urtero gertatzen den bezala, ipuinen saila izan da partehartzaile gehien ezagutu duen aukera, guztira 81 ipuin jaso dira, gaztetxoena 66, gazteenak 10 eta helduenak 5.

Poesian 23 pertsonak hartu du parte eta komiki sailean 10 lan jaso dira. Eta literatura alde batera utziz, argazki sailean 6 partehartzaile egon dira, 3 bideo sailean eta 8 diapositiba sailean.

Guztira 149 partehartzaile izan dira "Arrasate 93" lehiaketan parte hartu dutenak.

Eta azkenik, "Jokin Zaitegi VII. Itzulpen laburren" sariketan, 9 partehartzaile lanak jaso direla aipatu behar da. Gogoratu, sariketa honetara aurkeztutako lanek, "Yugoslavia Ohiko Gatazka" izan behar zutela gaitzat. Dena den, abendu aldera jakingo duzue irabazleen berri. Ordurarte, zorte on!

Lerro hauen bitartez, jende guztia animatu nahi dut lehiaketa bitxi honetan parte hartzera, uin gertatu zaidan bezala, zuk ere irabazi dezakezula.

Arantzazu

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78



- Garbitasun orokorraketa mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORATZA

LABURRAK

Ipuin Sariketa

Donostiako Injinarien Goi Mailako Eskolako Euskal Kultur Taldeak (E.K.T.), ipuin lehiaketa bati hasiera ematea erabaki du. Lanek gutxienez 5 foliotakoak izan beharko dute. Lanaren bi ale honako helbide honetara bidaliko dira 1993ko Urtarrilaren 12a baino lehen: Industri Injinarien Goi Mailako Eskola, M. Lardizabal Ibilbidea 13, Donostia 20009, E.K.T. D-21. Sariak: Irabazleak 20.000 PTA eta bigarrenak 10.000.

“Kontzertu-Sorpresa” AED eta Arrasate Pressen eskutik

Datorren azaroaren 26an, sekulako makro-kontzertu burutuko da Arrasateko kiroldegian gaueko 22.00etan. Anje Duhalde, Mikel Markez, Niko Etxart eta Lanperri eta Miliku trikitilariak, guztiak elkarrekin ikusteko aukera izango duzue. Dena den, kontzertuko une emozionalteena “gonbidatu-sorpresa” agertzen direnean izango da. Adi eta animo!

“Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak”

Azaroaren 26tik 27ra bitartean, Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak izango dira Euskadiko Kultura Egitza. Jardunaldi hauek Arrasate Komunikabideak, ARKOk antolatuak dira.



Musikariek ere badute euren zaindaria.

Santa Zezilia, halabeharrez musikarien zaindaria

Datorren azaroaren 21ean, igandean hain zuzen ere, Santa Zezilia eguna ospatuko dute bereziki musikariek. Ziurazki, gehienok jakingo duzue Santa Zezilia dela musikoen dela, baina agian ez duzue jakingo zein motibok bihurtu zuen Zezilia musikarien santu.

NOR IZAN ZEN ZEZILIA?

Zezilia erromatar Metiloen senide ilustre bat izan zen, Marko Aurelioren garraikoa hain zuzen. Kristaua izanik, kastidade botoak egin zituen, baina bere gurasoek behartuta, Valeriano izeneko gizon batekin ezkonduarazi zuten. Ezkontza egunean, musikariek beren instrumentuak astintzen zituzten bitartean, Zeziliak

Jaungoikoari kantatzen pasatu zuela egun guztia esaten da, eta hortik datorkio Zezilia ospetsuari musikariekiko harremana. Hain zen handia Jaungoikoarenganako fedea, santu bihurtu zuten. XV. mendean, Santa Zezilia artearen munduko pertsonai garrantzitsu egin zuten. Bere irudia, instrumentu musikal nahiz organu bateaz errepresentatzen da normalean. 1584. urtean Erromako Musika Akademia sortu zenean, Santa Zezilia aukeratu zen bertako zaindaria, eta ordutik aurrera, gero eta musika eskola gehiegok egin dute gauza bera.

Santa Zezilia, Arrasate Musikal akademiako patroia ere bada, eta egun horretan, akademiak jai eguna egiten du. Umeei goxoki poltsa han-

di bat banatzen zaie eta pozetik joaten dira etxera guztiak. Dena den, egurrezko eta metalezko instrumentuen banda berriek, kontzertu edo errezital txiki bat emango dute igande arratsaldean, Santa Zeziliaren omenez parrokiaren egingo den mezaren ondoren. Instrumentu talde bakoitzak banda independente bat sortzeko iniziatiba, aurten jarri da martxan. Iniziatiba honek, orkestra mailan izan barik, instrumentu berdineko taldeek musika obra desberdinak bakarka interpretatzea du helburutzat.

Dena den, tamalgarria da umeei zaindaria honen jatorria ez ezagutzea; ez litzaiteke batera txarto egongo, musika ikasgaiaren artean, Zezilia gaixoaren bizitza irakastea.

JoSTEKO

OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETAK
Tfnoa: 79 80 90

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

zortzi

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

Begoña

lurrindegia

**Drogeria
Jostailuak
Opariak**

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

• AIPUA •

“Kontzientzia zuzenak barre egiten du ospearen gezurraz”



Emakumezkoen izena

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10						11	
12				13	14		
15			16			17	18
19		20			21		
22							

J. B. AGORRIA

Horizontala 1. Asko dakien pertsona. 9. Iluntze. 10. Makal. 11. Kasik. 12. Ote. 13. Higuin. 15. Neona. 16. Elai. 19. Burutu. 21. (Ald.) Bizi garen planeta. 22. Basatza, lupe-tza.

Bertikalak 1. Beatriz, eskalatzaile arrasatearra. 2. Bihitegi. 3. Abereen umeaz esaten da. 4. Espainiako Estatist. Instit. Nazionala. 5. Asturiasen itsasoratzen den ibaia. 6. Telebisita. 7. Putre. 8. Oinarrizko edaria. 14. Kotxe txikia. 16. Niri. 17. (Ald.) Egur. 18. Musulmanen Jainkoa. 20. Iparretarrak.

• HOROSKOPOA •

Aries Ea sukaldari hobea bihurtzen zaren, afaritara gu gonbidatu

Taurus Zure burua Jainkotzat daukazu arren, ezer ez dakien pertsona arrunta zara.

Gemini Jai eta aste ugari zutaz pentsatzen igarotzen duen amorante bat daukazu.

Cancer Zuri ere heldu zaizu daukazu bizar pixka hori mozteko garaia.

Leo Sekulako zortea izango duzu ikasketetan edo lanean.

Virgo Nahiz eta diru gutxi izan, lotoan zer edo zer tokatuko zaizu.

Libra Ez pentsa ederrenak atseginenak direnik. Oso oker zaude horretan.

Scorpio Familiaren beharra sentituko duzu inoiz baino gehiago.

Sagitaris Asko estimatzen duzun pertsona baten gutuna iritsiko zaizu.

Capricorn Momentu batean izugarriko lotsa pasatuko duzu eta gorri-gorri jarri, baina ez da inor konturatuko.

Aquarius Izango duzun aukera, bakarra izango da eta beraz, ez hutsik egin.

Piscis Denok ditugu hutsuneak eta baita zuk ere. Ez pentsa perfektoa zarenik.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• LIERNI LASAREN GOMENDIOA •



Sasoi honetan, udazkenean, mendira joatea gomendatzen digu Liernik. Bera Nafarroa aldera joaten da, Baztan, aurrepirineoak eta Orhi eta handik Iratiko basoak ikustea ikaragarri gustatzen zaio. "Ostoen kolore aldaketak zirrara berezia sortzen du nigan". Nafarroan hemengo aldean gaztainadi, harizti, pagadi asko dago, eta zabalago ikusten da dena, Lierniren esanetan. "Zarata eta ketik ihes egiteko, oso lasaigarria da mendian buelta bat egitea".

• PROGRAMAZIOA •



- 21 Igandea**
20.00etan Astebete (errepikapena).
20.30etan Mondragol.
22 Astolohena
13.30etan Eguerdiko Berriak
13.35etan Mondragol (errepikapena).
14.05etan "Kareletik"
20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
21.30etan Mondrasport
22.00etan Gaueko pelikula: "Los Angelesen bizi eta hil"
- 23 Asteartea**
13.30etan Eguerdiko Berriak
13.35etan Mondrasport (errepikapena).
14.05etan "Los Angelesen bizi eta hil"
20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
21.30etan ATBketan Ichiaketa.
22.00etan Gaueko pelikula: Dokumentala. "Antartida. Zer da energia?"
- 24 Asteazkena**
13.30etan Eguerdiko Berriak.
13.35etan ATBketan (errepikapena).
14.05etan Dokumentala (errepikapena).
20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
21.30etan Pareak Jokuan
22.00etan Gaueko pelikula: "Roobin Hood lapurren printzea"
- 25 Osteguna**
13.30etan Eguerdiko Berriak
13.35eta Pareak Jokuan (errepikapena).
14.05etan "Roobin Hood lapurren printzea"
20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
21.30etan Bakarka. Karlos Argiñanorekin
22.00etan Gaueko Zinea: "Luky Luke ausarta"
- 26 Ostirala**
13.30etan Eguerdiko Berriak
13.35 Bakarka (errepikapena).
14.05etan "Luky Luke ausarta"
20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
21.30etan «Astebete» Magazinea.
22.00etan Gaueko Zinea: "Lauaxeta"

• KOMIKIA •



mokasin
Zapatak eta osagarriak
Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

"EDERTU"
ileapaindegia


San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

• SOLUZIOAK •
JEROGILIFIKOA
Emeteria.
Ala. 20. IK.
8. Ura. 14. Kart. 16. Eni. 17. Zur. 18.
Kume. 4. INE. 5. Nalon. 6. TB. 7. Sai.
Bertikalak 1. Jimenez. 2. Alegri. 3.
Lur. 22. Zikintza.
OK. 15. Ne. 16. Enara. 19. Egm. 21.
bar. 10. Memel. 11. la. 12. Eie. 13.
Horizontalak 1. Jakintsu. 9. Iluna
GURUTZGRAMA

IBIL ZAITEZ GOI MAILAN

Martxan jarri auto baten benetako balioak.
Martxan jarri ekipamendurik apartena.
Martxan jarri segurtasun neurri erosoena.
Martxan jarri Opel Vectra bat. Martxan.

300.000 Pezeta*
**BITARTEKO
DESKONTUA**



*Stock-ean dauden autoentzako promozioa hilabete honetan.

OPEL 

Z A I N G A U Z K A Z U

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Guipuzkoa)
Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria
Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL AUTO DENDA OFIZIALAK. DENBORAREN PODERIOZ ONENAK.